



ARGIA



ELKARRIZKETA

Ugo Mayor

**Test masiboak
eskura jarri dizkigun
(eta baliatzen ari ez garen)
zientzialarien
taldeko kidea**

30-33.orriak

2.687 | 2020 / 05 / 24 | 3,90 €



**Adin txikikoen
kirolean indarkeria
amaitzeko garaia**

22 | GIZARTEA



**Etxerik gabeko
gasteiztarren
konfinamendua
Lakuako frontoian**

27 | GIZARTEA



**Euskal Herrira
akordeoia ekarri zuen
trenbide-langilea**

44 | KULTURA

DATORREN ASTEKO ARGIAREKIN...

LARRUN #252
HILABETEKARI MONOGRAFIKOA



PANDEMIAREN
ITOLARRIAN

ARGIA.EUS/LARRUN

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | HUMANITATEAREN
UNE GORENAK
- 07 | EZ HANKA EZ BURU
- 08 | EKONOMIAREN TALAIAN

AZALEKO ARGAZKIA:
DANI BLANCO

Iritziak

- 17 | IRATI LABAIEN
- 18 | KATIXA DOLHARE
- 19 | ARKAITZ ZARRAGA
- 19 | ITXARO BORDA
- 20 | ZIGOR ETXEBURUA

SAILEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK:
CLIPART COURTESY FCIT

Finkoak

- 40 | ARGIA KOMUNITATEA
- 41 | DENBORAREN MAKINA
- 42 | BIZI BARATZEA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 50 | ZUZENENKO EMANALDIA
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGÍ-KONTRA: LAIA PALAU
- 54 | BERANDUEGI



27 | GASTEIZKO ETXEGABEAK

Lakuako frontoian bizi dira, osasun krisiak iraun bitartean. Bertan izan da Zigor Oleaga eta konfinamendu aurreko bizitzaz eta oraingoaz mintzatu zaizkio lau etxegabe. Ikusezin bihurtzen dituzten pertsonak entzun nahi?

Elkarrizketak eta erreportajeak

10 | NET HURBIL

**Big datako informatikariak ote dira
XXI. mendeko birologo berriak?**

Jenofa Berhokoirigoin

12 | AITZIBER GARMENDIA

**“Umorea beti gizonentzat
erreserbatutako eremua izan da”**

Reyes Ilintxeta

22 | KIROLA

Indarkeria adin txikikoen kirolean

Jon Torner

30 | SHOCKEAN ADI | UGO MAYOR

**“PCR test masiboak egingo balira,
ez legoke jende guztia eduki
beharrik konfinatuta”**

Estitxu Eizagirre

34 | EUSKARA | MIREN ARTETXE

**“Helduen kulturarekiko
haustura bera da
hizkuntzaren jarraikortasuna
bermatzen duena”**

Malen Aldalur

37 | POLITIKA | JEAN LOUIS DAVANT

**“Euskarak leku guti
zuen Enbatan, beste
euskal alderdietan bezala”**

Jenofa Berhokoirigoin

44 | KULTURA

**Juan Bautista Busca,
lehenengo euskal soinujoilea**

Gorka Hermosa

Jabetza

Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea
Lehendakaria
Bego Zuza
Erredakzioa
Amaia Lekunberri, Axier Lopez,
Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre,
Gorka Bereziartua, Jenofa Berhokoirigoin,
Jon Torner, Lander Arbelaiz,
Maria Ortega, Mikel Asurmendi,
Mikel Garcia, Onintza Irureta,
Pello Zubiria, Urko Apaolaza,
Xabier Letona, Zigor Oleaga
Diseinua
Maitane Gartzandia
Argazkilaria
Dani Blanco
Produktzioa eta inprimaketa
Antza S.A.L.
Administrazioa:
Jone Arzallus, Mari Karmen Loarte
Salmenta
Idoia Arregi, Karlos Olasolo,
Olatz Korta
Idazkaritza
Aloña Sorraluze, Bego Zuza
Web garapena
Asier Iturralde
Informatika
Iametzta Interaktiboa, S.L.

Lege gordailua

SS 837-2012
ISSN
0213-909X
Batzorde parekidea
72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoa
komertzial@argia.eus
harpide@argia.eus

Telefonoa

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria
Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa
Xalbardin baita. 64122 Urruña
Nafarroa
Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina
31001 Iruñea

Ametzagaiña taldeko kidea da ARGIA
honako enprekin batera:

antza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

iametzta
interaktiboa

ADUR software
productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu,
zabaltu eta argitaratu ditzakezu, gure
egilek aitortu eta baldintza beretan
eginez gero. Are gehiago, gure edukiak
ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.



Lizentzia hau soilik ARGIAren
edukientzat da baliagarria,
baliteke beste testu eta argazki
batzuek lizentzia hau ez izatea.



EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN
SAREKO KIDE GARA



ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZTAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA





JOLASTOKIAN PRESO?

Maiatzaren 11n Ipar Euskal Herriko eta Frantziako Estatuko hurrek eskolara itzultzeko aukera izan dute. Edo hobe esanda, behin eskola izan zenaren antza duen leku ezberdin batera. Haurrak laborategi batean baleude bezala, maskaratutako jendez inguratuta, mugimendua murriztuta, mugen zerrenda luzea eta, garrantzitsuena, harremanak erabat baldintzatuta. Bai, matematikak ikas daitezke horrelako eskola batean, baina hori al da eskolaren helburua? Ala helduon beldurrak barreiatzeko eremuak izango dira? Argazkia: Lille alboko Tourcoing herriko haur hezkuntzako eskolan.

MOTZEAN

Azkoitiko EH Bilduk salatu du kontrol eta baimenik gabeko zabortegi bat duela udalak eta urtetan beteta egon ostean, azken bi asteetan dena hustutzen aritu direla udal brigadako langileak. Bertako zaborra nora eraman duten galdetu du alderdiak.

Europako Batzordeak ikertu egingo du Zaldibarko zabortegia zergatik erori zen. "Kasuaren larritasuna ikusita", aztertu egingo dute ea arau hausterik egon zen.

Koronabirusaren kudeaketa kritikatzan duten ikasleak salatu ditzatela eskatu die irakasleei Frantziako Hezkuntza ministerioak.

Ipar eta Hego Euskal Herriaren artean mugitzeko eskubidea urratua izateak "haserre" eta "harridura" eraginik, mugak zabaltzeko deia luzatzen duen sinadura bilketa abiatu du hainbat herritarrek.

Gose greba hasi dute lau lagunek Ondarroan, Murtzia II espetxean gose eta edari greba abiatu duen Patxi Ruiz preso iruindarrari elkartzasuna adierazteko.

Ni.eus euskarazko e-mail zerbitzua martxan da. Puntueus Fundazioak eta Guebs enpresak garatu dute.



Amoniakoa isuri zuten Arkaitzerrekara

ARGIA / ZERO ZABOR

GHK-k espedientea ireki dio Zubietako errauste-planta kudeatzen duen Ekondakin enpresari, honek jakinarazi ostean amoniakoa isuri zutela aldameneko Arkaitzerrekara. Ehunka arrain hilda agertu ziren ondorioz. Aurretik, Jose Ignacio Asensio ingurumen diputatuak ziurtatu zuen "ezinezkoa" zela kutsadura erraustegitik irten izana.

Maiatzaren 7an kamioi zisterna batek amoniakoa isuri zuen Zubietako errauste-planta ondoan dagoen Arkaitzerrekara, haren kudeatzailea den Ekondakin enpresak (Urbaser, Meridiam, Altuna y Uria, Moyua eta LKS-k osatua) jakinarazi duenez. Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak (GHK) ohar bidez azaldu du zigor espedientea zabaldu diola enpresari. Horren berri eman dio Gipuzkoako Diputazioari, Eusko Jaurlaritzari eta Uraren Euskal Agentziari.

Zientoka arrain hilda agertu ziren erreka horretan eta kutsadura erraustegitik etor zitekeela ziurtatu zuten lekukoek. Alabaina, Gipuzkoako ingurumen diputatu Jose Ignacio Asensio ukatu egin zuen loturarik, esanez erraustegiak "ura kudeatzeko sistema itxia" duela.

ERRAUSTEGIAK IKERKETA OZTOPATU ZUEN

GuraSOS elkarteak salatu duenez, arrainen pozoiketa ikertzen ari ziren funtzionarioei –URA agentziaren ikuskatzaile bat eta basozaina– Zubietako erraustegiko arduradunek ez zieten instalazioak eta inguruak begiratzera sartzen utzi, horrela galduz ikerketa lehen unean burutu ahal izatea. GHKren erraustegia zaintzen duen segurtasun goarda batek ukatu egin zien sarbidea, telefonoz arduradunei kontsulta egin ostean. Ikuskaritzara hurbildutako funtzionarioek bestelako dei eta gestioak egin behar izan zituzten beranduago sarrera baimendu ziezaieten, hori bai, luze itxaronarazi ostean.

GuraSOSek Jose Ignacio Asensio diputatuaren dimisioa eskatu du eta URA agentziari eskatu dio Asensio erakunde horretan daukan interes gatazka aztertu dezala.

HUMANITATEAREN UNE GORENAK

Zaharrak



ARITZ GALARRAGA

Pribilejiatu bat naiz, badakit. Bizi garen etxeak elkar hiltzea desio ez izateko adina espazio dauka –ez gara berralokatutako gela batean bizi, gure kasuan lau pertsona, hamar metro karratutan–: badaukagu, hala behar izatera, gela bana, balkoi bat, joan-etorriak egiteko pasilloa. Seme-alabak ez dira txikiegiak, egun osoa inguruan molestatzen ibiltzeko, ez handiegiak, egun osoa lagunekin kalera atera nahi izateko; gainera hizketaldi inteligentek edukitu daitezke jada, eta oraino, haiekin. Osasun on samarra daukagu, batez ere fisikoa, nahiz korrikarik ez egin; tira, epidemia hasi aurretik geneukanaren berdintsua, behintzat.

Pribilejiatu bat naiz: gurasoak zaharrak dira, baina gaztee-giak oraindik asko-asko kezkatzeko. Ez dira arrisku talde, ez patologiaren baten jabe, ondo daudela ematen du telefonoz mintzo garen bakoitzean. Baina zaharrak dira hala ere –zaharrak, bai, ez adintsu, adindun, adinekoak; gazteak existitzen diren bezala –existitu, diot, ulertzea beste kontu bat da–, zaharrak ere existituko dira, ezta? Gero tartean gaude gu, adin ertaina, ze gauza ederra–. Eta hil diren gehiengo handi bat zaharrak izan dira, hiltzen utzi ditugun gehienak, adibidez erresidentzietan –diotenez hildakoen %70, aurretik erresidentzien eredua zalantzan jartzeko motibo ugari ez balego bezala–. Paidokraziaz hitz egin genuen moduan, gerontofobiaz hitz egiten has gintezke beraz? Santiago Alba Rico urrunago doa, eta, judutarrei erreferentziarik egin gabe, holokaustoa aipatu du, holokausto hitzak, etimologikoki, populazioaren multzo jakin bat sakrifikatzea esan nahi baitu. Argi dagoena da ondo planteatu beharra dugula, gizarte gisa, zer harreman daukagun heriotzarekin eta gero eta luzeagoak diren bizitzekin. Pribilejiatu bat naiz, badakit. Eta, hala ere, zaharregian pentsatzen dudanean, aurki gu ere izango garen zahar horien-gan, korapiloa egiten zait zintzurrean. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA
www.adurlarrea.com



"PANDEMIAK GORROTO ETA XENOFOBIA OLATUA HAUSPOTU DU"

ANTONIO GUTERRES, NAZIO BATUEN ERAKUNDEKO IDAZKARI NAGUSIA

"Errudunak bilatu nahian eta beldurra sustatuz", interneten eta kalean arrazakeriak eta xenofobiak gora egin dutela ohartarazi du Guterresek. Migratzaileak eta errefuxiatuak birusaren iturritzat jo eta segidan tratamendu medikua ukatu zaiela salatu du. Nazioarte mailako deia egin du, konspirazioek, musulmanen kontrako erasoek eta abarrek hartu duten indarrak kezkatuta. Agintari politikoei, hezkuntza erakundeei, hedabideei eta oro har gizarteari eskatu die joera hau geratzeko ahal dutena egin dezaten. **2020/05/09**



Zaharren egoitzak nazionalizatu



JUAN MARI ARREGI

Ez dago zoritxarreko pandemia honen ondorioz adinekoen egoitzetan jasandako tragediaren datu ofizialik. Maiatzaren 3ra arte, Espainiako Estatu erkidegoek emandako datuen arabera, 15.300 pertsona baino gehiago hil dira adinekoak hartzen dituzten zentro publiko eta pribatuetan. Zati bat Hego Euskal Herrikoa da. Heriotza horiek ez dira kasualitatea izan, ez dira gertatu adinekoak pertsona ahulagoak direlako. Hil dira egoitza horiek osasun arazoei aurre egiteko prestatuta ez daudelako, are gutxiago pandemia bati aurre egiteko. Gehienak ez daude medikalizaturik. Hori dela eta, kudeatzaileek euren burua “defendatu” dute, esanez pertsona horiek zaintzen dituztela baina ez direla “ospitaleak”.

Nor dira kudeatzaile horiek? Adinekoentzako zentroek 4.500 milioi euro baino gehiago fakturazten dute –2018ko datuen arabera– arrisku-kapitaleko funtsen bidez. Ustiapen-etekinen marjina %20 eta %25 artekoa da, eta batzuk %50era iristen dira, Angomed aholkularitza espezializatuaren arabera. Jakina da egoiliar bakoitzeko hilean 1.300 eta 3.000 euro artean kobratzen direla.

Ondorioa: adinekoen egoitzen pribatizazioa alde batera utzi behar da, funts handiek etekin handiekin gizentzeko balio izan baitu, besterik ez. Eta, beraz, egoitzak nazionalizatu behar dira, kudeaketaren eguneroko kontrola eta baliabide publikoen erabilera egokia ahalbidetzeko. Dagoeneko egin beharko litzatekeen premiazkoena, guztiak medikalizatzea da. Hau da, eguneko 24 orduetan arreta medikua egotea egoitza bakoitzean.

Gure adinekoek merezi dute arretarik eta zaintzarik onena. Eta botere publikoek badakite non aurkitu behar diren baliabide ekonomikoak. Besteak beste, gastu militar milioi dunak eta AHT bezalako obra faraonikoak albo batera utz ditzakete eta, bide batez, enplegu duina sortu. ●



@DURANGODIGITAL

AHTk itzuliko diguna

URKO APAOLAZA AVILA

Hondeamakinek joan den astean Abadiño Mendilibiar-erdikoa baserria nola eraisten zuten ikustean, zitzada bat jasoko zuen batek baino gehiagok gorputzean. 500 urteko baserria, gure ondare arkitektonikoaren puska baliotsu bat, behera bota zuten minutu gutxitan. Abiadura Handiko Trena igartzeko Durangaldean egiten ari diren lanen ondorioz bota dute baserria, baita Atxondoko “maisuen-etxea” ere.

AHTren obrak halako altxor ugariren gainetik ari dira pasatzen gupidarik gabe. Donostian, esaterako, hango eraikin zibil zaharrenetarikoa den Erbetegi dorretxea arriskuan dago Urumearen ertzean egiten ari diren txikizioa dela-eta, nahiz eta Balizko Arkeologia Gune gisa katalogatuta egon. Eta eraikin horiekin, han bizi zirenen oroimen puskak ere jausten dira ahanzturaren zulora. “Baten batek pentsatuko du pisu bateko etxebizitzaz aldatzea bezala dela. Niretzat, baina, ez da horrela”, adierazi du Mendilibiar-erdikoan jaiotako bizilagun batek.

Atxondo eta inguruetan, hamarkada bat daramate trenbidea egiteko desjabetze eta tramitazioek bueltaka. Baina, zer kasualitatea, alarma egoera betean ekin dio Adifek obraren fase mingarrienari. Teknikariak herri guztia marra horiz margotzera ere iritsi ziren... Herri guztia obretan! Atxondo AHTren kontrako mugimenduaren abangoardian egon da beti ordea, eta orain ere hango herritarrek ez dira isilik geratu. Konfinamendua hasi eta berehala burrunbada handia egin zuten balkoietatik; eta joan den astean, garaiotan ohituta ez gauden irudiak ikusi genituen kalean, elkarretaratze eta protestekin.

Batzuentzat AHTk jarraitzen du “lehentasunezko” izaten. Covid-19ren larrialdia-rekin enpresa nagusienak itxi zituztenean ere, obrak ez ziren gelditu. Kontrako plataforma eta eragileek, aldiz, eskatu dute azpiegitura horretan gastatuko den dirua osasungintzara eta gizarte zerbitzuetara bideratzeko –Atxondo eta Abadiño arteko zatiak soilik, gutxienez 93 milioi euro kostako digu–. Hala ere, obrak bizkortu besterik ez dira egin, berdin EAEn nola Nafarroan, Tafallako Junkal natur gune babestua kaltetzeraino.

Unai Rementeria Bizkaiko ahalzun nagusiak Euskadi Irratian esan du halako obrak estrategikoak direla *retorno* bat ekartzen dutelako –“lan horrek sortarazten du lan berria”–. Azpikontratetan ordua 6 euro kobratzen duten atzerriko langileez ari ote da? Oraingoz badakigu zer itzuli digun bueltan AHTk: lan prekarietatea, natur guneen suntsitzea, eta herri-ondarea galtzea. ●



PROTESTA ARTEAN HARTU DUTE URKULLU

BARAKALDO. Iñigo Urkullu Eusko Jaurlaritzako lehendakariak, Nekane Murga Osasun sailburuak eta Juan Luis Diego Osakidetza zuzendariak bisita egin zuten Gurutzetako ospitalera. COVID-19az kutsatutako pazienteak artatzeko birmoldatutako eremuak ezagutzea eta osasun langileak agurtzea zuen xede bisitak. Langileek protesta giroan egin diete harrera agintariei, eta besteak beste "Itxurakeria gutxiago, kalitate gehiago" edo "Plantilla gehiago" aldarriak helarazi dizkiete.

KULTURA

2,5 milioi



euro zozketa bidez esleituko ditu kurgileentzat Eusko Jaurlaritzak, eta polemika piztu du moduak. "Notario aurrean zozketa eginda zenbaki bat hautatu, eskabideak ordena hartan aztertu, eta deialdiko baldintzak betetzen dituzten guztiak esleituko dira, haiek finantzatzeko funtsak agortu artean" dio EAEko buletin ofizialak.

Informazio eskubidearen aurkako erasoak Gasteizen

 **ZIGOR OLEAGA / HALA BEDI**

"EZ ERABILI MUGIKORRA"

Gasteizko Udaltzaingoa legea urratuz sartu zen okupatutako etxebizitza batean. ARGIAko kazetari bat han zen lanean. Udaltzainetako bat, legeak dioenari muzin eginez eta gezurrak erabiliz, kazetariaren lana oztopatzen saiatu zen desalojoaren lekukotasun grafikorik egon ez zedin. Mugikorrak ez erabiltzeko esan zion eta mehatxuzko tonua erabiltzeaz gain, udaltzainak indarrean dagoen legearen, oinarritzko askatasunen edo Poliziaren eskumenen inguruko informazio okerra eskaini zuen. Edozein funtzionario publiko espazio publikoan lan egiten ari den bitartean argazkiak ateratzeko edo grabatzeko eskubidea dugu herritarrok, kazetari izan ala ez.

TELEFONOA KENDU ETA ISUNA

Bestalde, TALKA espazio feministaren desalojo saiakeraren berri ematen ari ziren Hala Bediko kazetariak mehatxatu zituen Ertzaintzak. Poliziaren jarduna grabatzeagatik telefonoa kendu eta 300.000 euro arteko isuna jarri nahi izan zioten irratiko kide bati. Hala Bedik auzitara eramango du Ertzaintzak izandako jarrerara. Izan ere, Hala Beditik ere azpimarratu nahi izan dute grabatzea ez dela delitua, eta herritar orok duen eskubidea dela.



ETXEGABEA. Emakume bat hil zen Gasteizko Udalak etxegabeentzat prestatutako zentroan, ohean zela. Gasteizko Udalak eta Gurutze Gorriak adierazi dute heriotza naturala izan dela. Zentroko kideek aldiz, salatu dute oso gaixo zegoela eta zentroan ez duela beharrezko arreta medikurik jaso.



KALERATZEAK. Ertzaintzak Getxoko Itzulbal-tzeta III Gaztetxea hustu zuen maiatzaren 11n. Gasteizen berriz, alde zaharreko Tal-ka guneko autogestionatu feministak hustu zuten bigarren aldiz ertzainek maiatzaren 15ean, eta barruan zeuden bi ekintzaile atxilotu zituzten.



HILKETA MATXISTA. Maiatza hasieran, emakume bat hil zuen senarrak Angelun, eta gero bere buruaz beste egin zuen. Talde feministek deituta elkarretaratzeak egin dituzte Baiona, Angelu, Hendaia, Kanbo, Hazparne, Garazi, Larzabale, eta Baigorri, feminizidioa salatzen.

BIG DATAKO INFORMATIKARIAK IZANGO OTE DIRA **XXI. MENDEKO BIROLOGO BERRIAK?**

Osasun-segurtasunaren izenean, herritarron bizi pribatuaren errespetua geroz eta gehiago dugu zangopilaturik. Koronabirusaren izurriteak ekarri du pertsonon jarraipen numerikoaren legitimazioa eta parte handi batean onarpena. Zelatatze hori litzateke epidemia kontrolatzeko eta mugatzeko bideetariko bat. Azken urteetan Asian garaturiko sistema mundu osoan hedatuz doa, Big Data esferako boteretsuen mesedetan. “Feodalismo numerikoa” izena jarri diote hainbat adituk garai berri honi.

JENOFA BERTHOKOIRIGOIN

Txina Europaren geroa izango ote da?” galderarekin bukatzen du *Feodalismo digital bateruntz?* artikulua Byung-Chul Han filosofo hegokorearrak. Galdera titularrean eta galdera testuaren bukaeran. Galderak luzatzeak berak izialdura dakar, baiezkoa irudikatzeak nekez imajinatu dezakegun mundu beldurgarri batean kokatzen gaituelako. Alta, Asiako herri andanatan, batez ere Txinan existitzen den errealtatea da. Argi du: “Gaur egun Asian, ez dute birologoek edo epidemiologistek pandemia borrokatzen, baina bai informatikariek eta big datako adituek”.

Koronabirusaren kutsadura mugatu izanaren arrazoietan dugu kontrol sozial numerikoa. Azken urteetan garaturikoa eta epidemiaren kontra muturreko moldean bideraturikoa. 2,76 miliar kamera instalatzekoak ditu Txinak 2022rako, jada 2018an zituen 450 milioi kamerez gain. Batzazbeste bi kamera herritarka. Makinatxo horiek aurpegi ezagupena egiten dabilta, bakoitzaren nondik norakoak jarraituz. Betaurreko inteligenteak ere baditu azken garai hauetan poliziak, adimen artifizialari esker metro batetara den pertsonaren sukarra neurtzeko, funtzio horretara bideraturiko kamera inteligenteak ere badituzte; ondotik abisua bidaltzen diote mugikorrera sukardunari, koronabirusaz kutsatua izan daitekeela abisatzeko eta konfinamendura bideratzeko. Mas-karek aurpegi ezagupena doi bat traba-

turik, Stanford unibertsitateko Amarjot Singh ikerlariaren algoritmo berria erabiltzen hasi dira. Honek aurpegiko hamalau puntu elkarri konektatuz, pertsona ezagutu dezake, maskara ukanda ere. Izurritea bukatuko den egunean aplikazio hau erabiltzen segituko duela abisatua du gobernuak. Alibaba enpresa boteredunak asmatu Alipay Health Code aplikazioa ere orokortzen dabilta: QR kode baten bidez, herritarrak jakiten du etxetik atera daitekeen (kodeak kolore berdea ukanez gero), zazpi egunez konfinaturik behar duen egon (kolore horia) ala bi astez mugimendu oro debekaturik duen (kolore gorria). Mugikorreren bidez egindako jarraipenari esker segurtatzen dute hori, kontrolatuz pertsona oro non eta norekin egon den. www.arte.tv kate franko-alemaniarrek kitorik eskura jarri duen *Tous surveillés, 7 milliards de suspects* dokumentalak xeheki aurkeztzen digun *big brother* jendartearen adibide batzuk besterik ez dira.

Ezberdintasun kulturalak direla medio, modelo asiar honek ez dirudi mendebaldeko liberalismoarekin bateragarria, Byung-Vhul Hanen arabera. Hala eta guztiz ere, hain muturrekoa ez bada ere, kontrol numeriko hori gure errealtate ere badela gehitzen du: “Zainketa panoptikoa ez da fenomeno soilik asiarra. Jada bizi gara mundu mailako panoptiko numeriko batean. Sare sozialek geroz eta gehiago antza dute erabiltzaileak gupidarik gabe zelatatzen eta maneiatzen dituen panoptiko bati”.

Feodalismo numerikoaren aroan garela dio filosofoak. Dionaz, erregeak eta jaunak guztiaren jabe ziren bezala, gaur egun Big Datan dira errege eta jaunak, gure ideia, gustu eta iritzien jabe eta ustiatzaile bilakaturikoak.

FEODALISMO NUMERIKOA

“Lur puska bat ekartzen digute Facebook gisako jaun feodalek, erranez ‘kitorik da, irauli ezazue orain’ eta ero batzuk bezala iraultzen gabilta. Azkenean, uztaren bila datoz eta horrela dabilta komunikazioaren zelatatzen eta ustiatzen, sistema ikaragarri eraginkorra da”. Zelatatze horrek ez du kexurik eta protestarik eragiten, gure askatasuna bera delako ustiatua, filosofoaren irakurketari segi. Are gehiago aske sentiarazten gaitu: “Google, Facebook edo Amazon bezalako plataformek zelatatzen eta manipulatzeko gaituzte, haien etekinak maximizatzeko. Klik bakoitza grabaturik eta analizaturik da. Hari algoritmo batzuen puntan diren txontxongiloak bezala erabiliak gara. Baina aske sentitzen gara. Askatasunaren dialektika batean gara zeinak menpekotasun bilakarazten duen askatasuna”.

Historian zehar kapitalismoa aurpegi ezberdinak hartuz joan da eta gaur egun “zelatatzearen kapitalismoa” bihurtu dela dio. Kontutan hartu beharreko elementua, numerikoa lotura sozialak ahalbidetzeko bide bihurtu zaigun distantziazio sozialaren testuinguruan. Koronabirusaren izurritearen



ADIMEN ARTIFIZIALARI ESKER ZELATATURIK

MUGIKORREI ESKER
BIDERATU KONTROLAZ
GAIN, ADIMEN
ARTIFIZIALARI ESKER
ERE ZELATATURIK
DIRA HERRITARRON
GORPUTZAK, TARTEAN
KAMEREN BIDEZ
SUKARRA NEURTZEKO
AUKERA DUTELAKO.

mapa osatzen laguntzeko, Googleren gisara, Facebookek ere jakinarazi du bere datuak eskura jarriko dituela. Munduko lau miliar erabiltzaile ditu Facebookek.

Bistan da, koronabirusak ez du krisiarekin errimatzen Big Datakoentzat. Konfinamendu garai honetan 35 miliar dolarrekoa izan da Microsoften negozioa, 24 miliarrekoa Amazonena eta 17,74 miliarrekoa Facebookena. Harremantzea, kontsumitzea zein lan egitea bide numerikotik bideratzeak dirua dakarrelako Big Datako jaunttotei.

Covid-19aren izurritea agerturik, Txinako Osasunaren Batzar Nazionalak tokiko gobernuei ondoko oharra egin zien: "Big Datak atzeman eta jarraitu ditzazke kutsatutakoak, epidemiaren bilakaera unean-unean aurreikusiz". Italia, Taiwan, Israel, Hego Korea, Aus-

tria... oharra kontutan hartu eta mundu mailako estatu askok dute arreta esferara horretara bideratu, smartphone mugikorren bidezko segipena abiatuz. Europar Batasunak ere ez du bidea hetsi, "interes publikoaren" eta "hil ala biziko interesen" izenean egin daitekeela erranez. Jarraipena bideratzeko orain arte lehiakide direnak elkartu dira - Microsoft eta Apple taldeak -, bi sistemen arteko komunikazioa bideratu dezakeen aplikazioa sortzeko. Dударик gabe, diru iturri delako marka.

OSASUNA VERSUS BIZI PRIBATUA

Herritarren zelatatze hori biopolitikoa bilakatzen ari dela dio Byung-Chul Hanek, -Michel Foucaulten zentzura, herritarren bizietan eta biziengan bideratu botere gisa ulertuz-. Gure gogoetetz gain, gure gorputza eta osasuna dira

geroz eta gehiago kontrolatuak. "Aske izatearen sentimentua ez da baztertzekoa, usteko dugulako osasun onean mantentzeko beharrezkoa dugula zelatatze biopolitikoa". Funtsean, herritarren lekukotasunei fidatuz, ustez koronabirusaz urruntzeko bidea delako dute milioika pertsonak telefono bidezko zelatatzea onarturik.

Bilakaera horretaz ari da *Le Grand Continent* webguneko "Feodalismo digitalaren aroa" (*l'ère du féodalisme digital*) artikulua mamitsuan Ramon Blecua: "Herritarrek aukeratu behar izan zuten askatasuna ala sekuritatearen artean; orain osasuna eta bizi pribatuaren artean hautatu beharko dute". Estatuak boterea galdurik eta enpresa pribatu erraldoiek guztia kudeaturik, benetan hautua ukateari buruzko zailantzak ditu Blecuak. ●

**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani 23 - 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

f u



UMOREA BETI GIZONENTZAT ESKLUSIBOKI ERRESERBATUTAKO EREMU BAT IZAN DA



Koronabirusak kulturaren alorrean eragin duen krisia hain da larria, Aitziberren irribarrea ezabatzea ere lortu duela, aldizka bederen. Sei antzerki lanekin gira eta bueltaka zebilen gelditu gabe asteburuero eta ETBko *Gure kasa* saioan astean zehar. Bat batean dena gelditu zen, baina beste sortzaile asko bezala, etxetik ari da egunotan lanean, eta berarekin batera bere ahizpa birtualak: Gorane, Virginia Santos...

 REYES ILINTXETA  DANI BLANCO

Zer moduz daramazu konfinamendua?

Geroz eta hobeto. Hasieran kostatzen zela egin zitzaidan baina ohitu naiz etxean eta geldi egotera. Zera gertatu zait, pasatu behar izan dudala ehunetik zerora egun batek bestera. Pasa naiz ia egunero telebistan aritzetik eta asteburuero antzerki funtzioak izatetik kasik ezer ez egitera. Oso geldialdi bortitza izan da, baina erritmo honetara ere egin naiz.

Noiz eta nola amaituko den ez jakitea da gogorrena?

Dudarik gabe. Etxean egon behar izateak baino gehiago gero zer etorriko den ez jakiteak sortzen dizu ezinegona.

Hemendik aurrera garai latzak aurreikusten dituzu kulturarako?

Bai. Nik uste dut 2020an ez garela normaltasunera itzuliko.

Gauza bat da kalera ateratzen hasia eta beste bat antzokiak betetzea. Zuzeneko artea, kontzertuak, antzerkia... 2021ean itzultzea sinatuko nuke orain-txe bertan. Honek min handia egingo dio gure sektoreari eta ez dakigu noiz arte luzatuko den krisi hau.

Kultura entretenimendu gisa ulertzen dute askok?

Hori askotan gertatzen den zerbait da eta politikatik ere kultura entretenimendu soil bat bezala ulertzen denean gaizki

goaz. Eta ez dut esaten entretenitu egin behar ez duenik, baina ez soilik hori, noski. Itzalaldia eta greba egin ditugu egun hauetan gogoeta hauek eragiteko.

Uste dut oinarritzko babes maila bat behar dugula eta momentuz ez daukagu. Euskal Aktoreen Batasuna eta gremio osoa ari gara lanean ikusteko galerak zenbatekoak diren eta nola egin dezakegun aurrera, baina besterik ez. Agintariekin laguntza posible batzuei buruz hitz egiten saiatu gara, baina orain ez dela horretaz hitz egiteko unea esaten digute. Ikusiko dugu, ba, noiz den momentua!

Beti oso kastigatuta egon gara eta nahiz eta ni beti oso baikorra izan, oraingo honetan ez dut prebisio onik aurrera begira.



Aitziber Garmendia Mendizabal

ZALDIBIA, 1982



Ikastolan hasi zen antzerkia egiten. Hamahiru urterekin oholtzara atera zen lehen aldiz Beasaingo antzerki taldearekin. Aktore ikasketak egin zituen eta, aldi berean, Zuzenbidean lizentziatu zen. 19 urterekin hasi zen ETBko *Martin* telesailen lanean. Ordutik hamaika saio eta telesailen parte hartu izan du, haien artean elkarriketak eta bakarrizketak uztartzen zituen *Batek daki* arrakasta handiko saioa. bost filmetan lan egin izan du (*Ocho apellidos vascos*, *Sukalde kontuak* eta *Txarriboda*, besteak beste) eta 25 bat antzerki lanetan. Gaur egun sei muntaiatan ari da aldi berean: *Losers*, *Erlauntza*, *Moko zorrotza*, *Rita*, *Txanogorritxotik otso emera* (sei mutil medio) eta *Feminaiz*, berak idatzitako bakarrizketa. Eta horiek guztiak euskarazko eta gaztelaniazko bertsioetan, beraz hamabi antzezlan ditu une honetan buruan. Horretaz gain, *Gure kasa* ETB1eko saioan ari da lanean gaur egun eta La Jaio, Gorane, Zuriñe eta Virginia Santos pertsonaia arrakastatsuen sortzailea da.

Italian, Frantzian edo Alemanian aurrekontu bereziak dituzte kultura laguntzeko. Alemanian kultur alorreko autonomoek 1.600 euroko soldata izanen dute. Hori hemen pentsaezina da?

Aurretik ere bazuten beste babes klase bat sortzaileentzat hemengo egoerarekin batere zerikusirik ez duena. Nik pentsatu nahi dut agian Euskal Herriak beste jarrera bat hartuko duela. Espainiaren zain bagaude, jai dugu. Ez zaie interesatzen kultura maila bat egotea, pentsatzen duen gizarte bat edukitzea interesatzen ez zaien bezala. Horregatik esperantza pixka bat eduki nahi dut eta sinetsi Euskal Herriak beste puntu batek helduko diola krisi honi. Eta jendeak ere kontziente izan behar du euskarazko kultura kontsumitzea gure esku dagoela eta behar-beharrezkoa dela, bizirik mantendu ahal izateko.

Telebistako Gure kasa saioarekin jarraitzeko etxetik ari zarete moldatzen. Zer moduz?

Astean behin egiten ari gara. Astean lau egunez egiten genuen eta orain astean behin soilik. Eta etxetik egitea beste formatu bat da. Ez da erraza izaten ari taldeko inorentzat. Zerbait guztiz berria denontzat. Etxean dugun ordenagailuarekin eta Skype bidezko konexioekin moldatzen gara. Nik pertsonaia bat baino gehiago egiten dudanez, ETBtik bidali zizkidaten pelukak, makilatze behar ditudan gauzak, jantziak... halere, gremio askotako hutsunea sentitzen dugu. Nik ez dakit ezer argiztapenaz, soinuaz, makillajeaz... beste lankideen egitekoa zure gain hartu behar duzu eta kasu batzuetan dibertigarria den bezala, erantzukizun handikoa ere bada eta ez dakizu ondo ari zaren edo ez.

Bat batean jende asko youtuber bihurtu da-zarete?

Bai, hala da. Aspaldi honetan esaten ari dira hori etorkizuneko lanbidea dela eta itxialdi honek gure lanaren parte bat horrela egitera eraman gaitu.

Harrigarria da zer nolako mugimendu handia dagoen egun hauetan sortzaileen partetik, ezta?

Ikaragarria. Nik hor nire sentimendu kontrajarriak ditut. Alde batetik gustatzen zait jendea doaneko lan hori eskaintzea, baina bestetik beti ari gara aldarrikatzen baldintza duinak behar ditugula, gurea bereziki zigortua dagoen

lanbidea delako eta inolako ziurtasunik eskaintzen ez duelako, eta orain dena oparitzen hasi gara. Zalantza dut barnean ea ondo egiten ari ote garen. Espero dut ondorio negatiborik ez ekartzea eta jendeak ulertuko duela hau etxean dagoen jendea laguntzeko eta entrete-nitzeko mugimendu bat izan dela beste ezeren gainetik. Ez dut uste erakundeek eta kudeatzaileek esango dutenik “doan egin duzue, segi dezala denak doan izaten”.

Kulturgileek etengabe presente egoteko beharra sentitzen duzue?

Sortzaile batentzako amesgaiztorik txarrrena da bere publikoa berataz ahaztea. Bestalde, sortzaileak garen heinean, ezinbestekoa egiten zaigu sortzea eta sortzen duguna erakutsi nahi dugu. Ezin duzu hori barruan gorde. Eta itxialdi egoera honetan inoiz baino gehiago. Sormen hori askatzen duzu eta hemen dagoenez, munduak ikus dezala. Behar hori hor dago.

Sare sozialak sutan daude egun hauetan...

Onerako eta txarrerako. Gauza oso onak ikusten dira eta auzo lotsa eragiten duten batzuk ere ikusi ditut nik. Edozein prezioan presente egotea egoteagatik, ez. Nik pertsonalki ez nuke edozein gauza zintzilikatuko eta itxialdi honetan sentsazioa izan dut jende asko horrelakoe-tan ari dela.

Etxetik aritzean pribatua eta profesionala gehiegi nahastu egiten ari gara?

Bai. Zure etxea den zure bunker horretatik ari zara eta hor gauza asko erakusten duzu. Niretzat nire etxea erakustea biluztea bezalakoa zen. Beste askorentzat agian tontakeria izango da, baina niri inporta zait. Eta zaila da dena kontrolatzea. Sare sozialetan zuk erabakitzen duzu zure bizitza pertsonaletik zer erakutsi eta zer ez. Telebista saioaren kasua desberdina da. Zuk saioa egin nahi duzu eta zure etxetik izate horrek garrantzia galtzen du, eta orduan gerta daiteke momentu batean kontrola galtzea, horregatik nik argazkiak kendu egin ditut, adibidez. Ez dut nahi mundu guztiak ikus dezan etxean zer dudana. Hala ere, neuk ere zalantza eta kontraesanak baditut. Beti esaten dut nire bizitza pertsonaleko ezer ez dudala partekatu behar eta nire bikotekidearen argazkirik, adibidez, ez dut jartzen, baina nire hiru urteko illo-



barenak, aldiz, bai. Ahizpari galdetu nion eta baietz esan zidan, baina nire barruko mamuekin eta kontraesanekin ari naiz bueltaka beti, behin botatzen duzuna hor gelditzen da eta.

Jendearen jakin-gosea ase ezina da?

Eta garbi dago mundu hau mugiarazten duen gakoetako bat morboa dela. Gogoeta egin beharra dugu noraino elikatu nahi dugun morbo hori, bai sare sozialean eta baita orain telelanaren bidez ere.

Jarraitzaileak lortzea da askoren helburua?

Horretan benetako lehia dago baina ni ez nau kopuruak horrenbeste kezkatzen. Nahiago dut jakitea zer profil duten nire jarraitzaileak. Sare sozialak, gehienbat, nire antzerki emanaldien promozioa egiteko erabiltzen ditut eta inporta zaidana da ea nortzuk diren nire ikuslearen profilean sartzen diren jarraitzaile horiek: hemengoak, antzerki zaleak...

Sare sozialetan jartzen diren gauza batzuek oihartzun ikaragarria izaten

dute eta jakin behar da horiek erabiltzen. Ni orain sareak sailkatzen ikasten ari naiz. Uste nuen Twitter gehiago zela kontu profesionaletarako eta orain, aldiz, ikusten dut gehiago dela gogoetarako, borrokarako edota beste zerbaitetarako tresna bat. Gainera Instagramen *postureo* asko dagoela esaten dute, baina Twitterren ere sekulakoa dago, *postureo* intelektuala, baina *postureo* azken finean.

“

Kultura dela eta, nik pentsatu nahi dut agian Euskal Herriak beste jarrera bat hartuko duela krisiaren aurrean. Espainiaren zain bagaude, jai dugu”

Nik bi horiek erabiltzen ditut eta tarte-ka Facebook ere bai, baina oso gutxitan, besteetan zerbait jartzen dudanean bidenabar partekatzen dut hor ere.

Eta Virginia Santosek badu bere kontua Instagramen 2.600 jarraitzaile baino

gehiagorekin. Kontent dago?

Bai! (irriz). Iban Garcíaren ideia izan zen. Bera arduratzen da saioaren sare sozialen kudeaketaz eta berak proposatu zuen. Gero eta gehiago gozatzen dugu horrekin. Jolas bat bezala ulertu dugu eta orain arte gozamenetik gehia-

go eman dit lanetik baino. Gure kasa-ko produktu bat da eta saioa elikatzeke ondo dagoela iruditzen zait.

Egun hauetan antzerkia faltan botatzen dut eta sare sozialetan nire pertsonaiekin agertzea niretzako metadona moduko bat da.

Umorearen erreferentzia zara gurean. Zergatik dago emakume umoregile horren gutxi munduan?

Ez delako izan guri utzitako espazio bat. Umorea eta komedia beti gizonentzat esklusiboki erreserbatutako eremua izan da. Gu beti nahi izan gaituzte formal, zuzen eta gizonen zerbitzura. Umorea, antzerkia... gizartearen isla besterik ez da. Emakumeak ez zaio eskubiderik eman bere bidea egin dezan. Iruditzen zait hor dagoela akatsa. Gizonentzat eta emakumeentzat idazten diren testuek ez dute zerikusirik. Badirudi guk ezin dugula politikoki ez zuzenak izan. Adibide ona da *Erlauntza* antzezlan. Hor sei emakume gaude oholatza gainean, jendeak buruan duen horretatik nahiko haratago daudenak. Inork espero ez duen emakume mota bat da. Eta iruditzen zait hori erakustea eta defendatzea oso garrantzitsua dela.

Emakumeontzako arruntak diren gauza asko arrotzak dira gizonezkoentzat. *Erlauntza* ikusi ondoren, niri gizon batzuek esan didate ez dela oso erreala “emakumeak ez zaretelako horrelakoak”. “Eta zuk esan behar didazu niri nolakoak garen gu?”. Faborez!

Mila aurpegi dugu, gizonek bezala, baina erakutsi digute horietako batzuk erakustea ez dagoela ondo. Guk *Erlauntza*-n sekulako konplizitatea sentitzen dugu publikoko emakumeekin. Eta hala-ko ekimenen behar handia dago.

Umorearen indarra handia da?

Bai, baina hor ere sekulako hipokresia dago industriaren aldetik. Umorea da gehien kontsumitzen den produktua, diferentzia handiarekin gainera eta hor kontraesana dago komedia edo umorea beti kontsideratu izan delako dramaren anaia edo ahizpa txikia bezala. Komedia beti bigarren mailan egon da. Edozein sari banaketatan, edozein antzerki jardunalditan zer gertatzen den ikustea besterik ez dago. Nolabaiteko konplexua dago. Ni oso harro nago egiten dudana. Drama ere egin izan dut eta oso gustura, baina iruditzen zait jendea barre eginaraztea ikaragarri zaila dela eta ez zaiola ematen behar duen garrantzia.

Euskal Herritik kanpo, konfort-eremutik kanpo, nola sentitzen zara?

Oso esperimentu polita izaten ari da. Egia da euskal ikuslegoak ezagutzen nauela. Hemen agertoki zapaldu orduko jendeak badauka nolabaiteko predisposizioa barre egiteko. Espainian ez dute hori eta lehenengo momentutik behar duzu borrokatu hori dena sinesgarri egiteko. Funtzio bakoitzean zerotik ehunera pasatzea ikaragarria da pertsonalki eta profesionalki ere bai. Nekagarria den bezala, sekulako saria ere izaten da.

Umoreak badu mugarik?

Nik beti defendatu izan dut umoreak ez lukeela mugarik izan behar eta pertsonalki umore guztiak gustatzen zaizkit, baina ni neroni kontraesanetan erortzen naiz eta ez dut umore matxista toleratzen, adibidez. Bestalde, egia da umorea segun eta zertaz egiten den zigortu egiten dela. Izan ere, Espainiako errege-erreginarekin, banderarekin... sartzeagatik zigortuak izan dira zenbait umoregile.

Non dago muga? Norberak jartzen du edo jartzen digute? Nik uste dut denok egin beharko genukeen gogoeta dela.

Umorea egitean gizartearen parte baten erretratua egiten duzu eta norbait

minduko duzu seguru, minduta sentitu nahi badu behintzat. Virginia Santos, adibidez, erretratu bat da, fikziozko pertsonaia bat eta gure gizartearen gauza batengatik edo bestearengatik antza duten pertsonak badira, baina horrekin ez gara barre egiten ari elizkoiak diren edo asma duten pertsonen kontura.

Batek daki saioan zure bakarrizketak elkarrizketa sakonekin uztartu zenituen. Zaila egin zitzaizun aritzea elkarrizketatuei itzalik egin gabe?

Oso jende interesgarria elkarrizketatu genuen eta galdera pila etortzen zitzaidan burura, baina telebistan dena ongi mugatu beharra dago. Seguruenik gehien gozatu dudana lanetako bat izan da eta, aldi berean, esfortzu gehien eskatu didana. Oso zaila izan zen. Nik ez dut ikusten neure burua elkarrizketatzaile on gisa, baina hor zegoen aukera bakarrizketak egiteko, esketx momentutxo asko, eta horri heldu nion baiezkua emateko garaian. Izugarrizko bidaia izan zen.

Gainera asko ikasi nuen. Bizitzeko mila modu daudela eta bizitza ulertzeko mila bide ezberdin daudela ikusi nuen. Ikusleen harrera oso ona izan zen eta gaur egun errepikatzen ari diren honetan ere jendeak ongi heldu dio horri eta maiz esa-

ten digute zer saio ona den.

Zer falta da ETBn?

Gauza asko, baina nik fikzioa botatzen dut faltan. Badakit alardearen inguruko serie bat egiten ari direla eta *Ihesaldia* egin dutela duela gutxi, baina ez da garai batean zegoen fikzio kantitatea: *Goenkale*, *Martin*, *Bi eta bat*, *Jaun da Jabe*, *Pilotari*... Guretzako lan piloa zegoen. Ez genuen kanpora begiratzeko beharrik hemen industria bat zegoelako eta aukera pila. Nik hori botatzen dut faltan ikaragarri, nahiz eta ni zorioneko sentitzen naizen fikziozko pertsonaiak lantzen ditutalako telebista saio batean, baina oro har, euskal aktoreen ikuspuntutik diot, fikzio gehiago egotea beharrezkoa da.

Zenbat ate ireki dizkizu irribarre horrek?

Bat baino gehiago seguruena. Behin batek galdetu zidan ea irribarre jantzita esnatzen ote nintzen. Ez naiz kontziente askotan irribarreitsu nagoela. Are gehiago, serio banago jendea hasten zait galdezka ea ondo nagoen. "Irribarrea erantzi dut segundo batez, inporta ez bazaizu". Amak ere esaten dit txikitari niri errieta egitea oso zaila zela, beti nuelako barre eragiten zion keinu inposible bat. ●

EUSKARA IKASLEA ZARA? IRAKASLEA?



Maiatzekoa, kalean!

- EUSKARAZ IRAKURTZEKO OHITURARIK EZ DUTENENTZAT
- BALIAGARRIA EUSKARA IRAKASLEENTZAT
- 10 ZENBAKI URTEAN

Urte osoko harpidetza (Hego Euskal Herria eta Espainia) 29€ ● aizu.eus



Etorkizunerako liburu bat

Aspaldian garbitu gabeko txokoak eta urteetan ireki gabeko kutxak astintzea eragin du alarma egoeragatiko itxialdiak. Honelaxe iritsi da nire eskuetara ganbaran topatutako *Kapitala* liburua. Hauts artean ezkutuan ziren Marxen ideiak, 70eko hamarkadan sindikalgintzan aritutakoa izan genuen aitaren oharrekin batera. Preziorik ez duen aurkikuntza horietako bat izan da, utzitako maitasun herentziarekin batera.

Alarma egoeratik hamabost egunetara, Madrilgo gobernuak funtsezko jarduerak zehazten zituen dekretua argitaratu zuen; nolabait, jendartearen antolamendurako esentziazkoak iruditutako zitzaizkionak. Jarduera horietatik bada desadostasuna eragin duenik (armadaren presentzia esaterako), baina bada batasuna lortu duenik ere, gehienak, zaintza lanei loturikoak. Txalo artean hartu ditugun jarduera horiek guztiak, justuki azken hamarkadan zehar murrizketa eta pribatizazio handiak jasan dituztenak izan dira.

Ziurgabetasuna izan daiteke asteotan bizitzen ari garen emozioetako bat, bereziki, etorkizunean islatzen gaituzten begiradek zulo ekonomikora goazela diotelako. Sentipen honen aurrean, 'egunerokotasun berria' deritzon aroari aurre egiteko ezinbestekoa litzateke funtsezko jarduerak indartzea, jendarteak babesten dituenak izateaz gain, gisa honetako krisien aurrean euren sendotasuna giltzarri dela begi bistakoa delako.

Ez dakigu nola egokituko liratekeen Marxen ideiak egungo testuingurura, bereziki interesgarria litzateke zaintzari eta ingurumenari loturiko gaiak nola landuko litzuzkeen jakitea

Nahitaez, bizitzaren erroetara jo behar dugu, gure etxearen antolaketa nola birbideratuko dugun hausnartzera. Azken batean hori baita ekonomia, etxearen kudeaketa.

Ez dakigu nola egokituko liratekeen Marxen ideiak egungo testuingurura, bereziki interesgarria litzateke zaintzari eta ingurumenari loturiko gaiak nola landuko litzuzkeen jakitea. Ez dut uste errealitatean aplikatzeko teoria perfekturik existitzen denik, uneoro aldakorra den errealitateari egokitu beharrean gaudelako. Halarik ere, historiak erakutsi diguna jakitea eta sektore publikoaren pribatizazioak eragin dituen desparekotasunak identifikatzea, etorkizunari aurre egiteko ezinbestekoak direla uste dut.

Ganbaran egindako aurkikuntzak atzerakako begirada bat iradoki dit, hausnarketarako geldialdia. Dena dela,




IRATI LABAIEN EGIGUREN
EHU-KO IRAKASLEA

aurkitu ez dudanak ere zer pentsa eman dit. Hamaika elkarrizketatan jakintza eta ikuspuntu transmisioa izan bagenuen ere, garai hartan langileen eskubideen aldarrikapenean murgildurik egon zen aitaren liburu gutxi topatu ditut. Gero-
ra jakin dudanez, bost egunez tortura gogorrek pairatu zituen, bere kide zen Arangoarekin batera (ARGIaren 2369. zenbakian modu xehean azaldu ziren gertaera haiek). Indarkeriazko testuinguru hartan desagertu omen zen etxeko liburutegi txikia. Naomi Klein idazlearen arabera, hainbatetan tortura saioetan erabiltzen diren tekniken helburua sistemaren kontrako ideiak deuseztatzea da, iragana ezabatzea. Autorearen arabera, azken bost hamarkadetan gertatu diren hainbat gerra, diktadura, hondamendi eta krisietan erabili den teknika izan da, 'shockaren doktrina' moduan ezaguna egin dena. Nolabait, muturreko egoeretan jendartearen blokeatuta dagoen bitartean, zerbitzu publikoen arpatzea eragin dutenak izan dira. Normala den legez, egun daukagun pandemia honek beldurra eragin du hainbaten artean. Espero dut, beldur horrek funtsezko jardueratzat hartu ditugun horien aldarrikapena egiteko adorea ez estaltzea. Nik, badaezpada, *Kapitala*-rekin batera utziko dut *Shockaren doktrina* ganbarako apalean, etorriko direnek jakin dezaten etorkizuna soziala izateaz gain, irmotasuna erakutsi behar dute berau defendatzeko. ●

Double bind



KATIXA DOLHARE-ZALDUNBIDE
IDAZLEA



PAULA ESTÉVEZ

Badu hirurogeita hamar bat urte *double bind* edo bortxa bikoitzaren kontzeptua ezaguna dela psikologia arloan. Hori da pertsona bat behartzea paradoxazko bi manuri obeditzera: pertsona horrek bi aginduetarik bat betetzen badu, nahi ala ez bestearen aurka joanen da, eta alderantziz, bi eginbeharrak bat bestearekin kontradikzioan direlako. Kontzeptu hori konkretuki erabil daiteke norbait menpekotasunean mantentzeko, hari jazartzeko, edo eroarazteko. Lan munduan bereziki garatu den bortizkeria mota da.

Konfinamenduaren hastapenetik, eta are gehiago delako deskonfinamendu garai honetan, botere politikoak argiki asumitzen duen metodoa da gizartea bere gisara plegarazteko: ahoan bilorik gabe galdegiten dio jendeari hauta dezan osasuna eta soldataren artean, gazte eta xaharren artean, birtualtasunaren eta gizatasunaren artean, aukeratzen ahal balitz bezala! Jasan ezina den arduraren zamarekin dabil orduan norbanakoa, bortxa bikoitzen mugez artean preso. Haurrak eritasuna eskolatik etxera ekartzen badu eta amatxi xaharra hiltzen bazaizu, zure falta! Soldatarik gabe gelditzen bazara eta haurrak gosez atxi-

kitzen badituzu etxean, zure falta! Eskolara bidaltzen baduzu umea eta handik itzultzen bazaizu beldurra burumuine-raino sartua, zure falta! Erantzukizun osoa zuri uzten dizu estatuak.

Bi ondorio atera daitezke bortxa bikoitzak markatzen duen egoera horretatik. Lehenik, norbanakoa kulpabilizazioak lehertua gelditu daiteke, nehoiz baino gehiago burutik eritua. Bigarrenik, nehoiz baino gehiago gara daiteke gizartean izpiritik kritikoa, umorea, sorkuntza artistikoa, elkartasuna eta etorkizunari buruzko mugimendu berritzaile sorta.

Galdera da gaizki izateak ala baikortasun aktiboak duen gaina hartuko –ekonomia birtualaren makineria erraldoiak ez badu gizarte osoa porrokatzen, behingoz, politika faxisten laguntzarekin. Bestalde, izugarria da ohartzea egoera hau etorkizunaren aitzin-dasta baizik ez dela. Zientifikoek diote ezagutzen dugun izurriak mundu heinean herritarren %1 soilik hilen duela, eta datozen katastrofeak aise ikaragarriagoak eta hilkorragoak izanen direla. Lan munduan, ulertua dugu konfinamendu garaia esperientzia epea izan dela, zapalkuntza sistematiko, metodiko

eta neurri handikoak entseatzeko modukoa, birtualtasunaren eta ekonomia espekulatiboaren onetan, mundutar boteretsu bakar batzuen probetxurako –Frantzian, Hezkuntza Ministerioak jadanik zabaldua du galdetegi bat, zeinetan galdegina zaien irakasleei “zein onura erakarri dien” urrunetik irakasteak, eta ondorioz “zer aldatuko duten” beren praktika pedagogikoetan hortik goiti, iduri eta jokabide numerikoek bete izan ahal dutela humanoki galdua izan dena irakaslearen eta ikasleen artean.

Ateka gaitzetik ateratzeko irtenbide bat izan daiteke heldutasunaz gogoeta-tzea. Haur indargabetuak bagina bezala gobernatu gaituzte agintari guztiz ahaltsuek, gezurrez josiz beren deliberazioak eta zentzuz kontrako erabakiak aplikaraziz. Baina guri da ahal dugun neurrian haurtzaro zozotu horretatik jalgitzea: nerabesarora pasatu behar dugu lehenik, bazterrak irauliz eta haserrearekin, eta ondotik heldutasunera, gazteriari merezi duen heziketa eskainiz eta haren errespetuz beste bideak urratuz, garai deno. Menturaz, geroan etorriko diren katastrofeen artetikako atsedeen denboraldiak laburregiak izanen direlako sistema osoa erabat aldatzeko... ●



**ARKAITZ ZARRAGA
AZURMENDI**
EUSKARA IRAKASLEA

Etxealdia ez da itxialdia

Etxealdi gogorra gurea! Inork irudika ez zezakeen egoera kafkarra. Martxoaren 17ko Teleberria astebete lehenago jarri baligute, ziplo eroriko ginen gehienok. Baina joan gara ego-kitzen; harrituta edo ikaratuta, baina etxean, zintzo.

Guztiok izan dugu hausnarketa sako-nik, gehiegizko kontsumoaz, benetako lehentasunez edota txarrago dauden egoeraz. Presoak ere izan ditugu gogoan. Inoiz baino gertuago sentitu ditugu. Pentsatu dugu, nolabait, gu ere preso gaude-la, soma dezakegula zer sentitzen duten. Baina haiek ez daude etxealdian, itxialdian baizik. Pentsa zein handia den alde-a, herri gehienetan itxialdikoak etxeal-dira bidali dituzte, gurean ez bezala.

Itxialdian ez dago bizkotxoak egiterik, ezta internet bidezko zumba saiorik ere. Osasuna ere ez dute bermatuta. Protokolok gabe dabilta, funtzionarioek sar dezaketen birusaren mehatxupear. Babes neurri nagusia itxialdia estutzea izan da.

Etxealdian dendara irteteko aukera dugu, eta tranpak egiteko, orain ogia, orain esnea erostera irtenda. Itxialdian ekonomatuak itxi egin dituzte! Akabo lor zitekeen janari duin bakana. Eskuar-tean edo pantailan duzun aldizkari hau ere, ez zaie heldu hainbat astetan, inprimatzeak zekartzan arriskuak direla eta.

Itxialdian daudenei, etxeko zaintza eta beroa ere ukatu dizkiete. Eta txarre-na da ez dagoela argi noiz itzuliko diren bisitak, Cádizera hainbat probintzia baitaude, eta denek gainditu beharko dituzte fase guztiak, senideak bertatik pasa daitezen.

Bisiten ordez, etxealdian oso ohi-koa izan den zerbait eman diete: lau dei gehiago eta bideo-deiak (kartzela batzuetan). 40 minutuko bisita edo 2-3 orduko *bisabisaren* ordez, 10 minutuko bideo-deia. Baina ez dira bideo -poteo, -batzar, -eskolak... 10 minutuko dei ihes-korrek baizik. Hiru senideko etxean hiru-na minutu, zailtasun teknikorik ez bada.

Argi dago bideo-deiak ez direla nahi-koa, baina ezin dira alarma egoerara mugatu. Euskara ikasteko ere, adibidez, funtsezko baliabidea litzateke, eta ber-din Moodle plataforma bidez ikasteko aukera ere. Etxealdian probatuta, bada-kigu ez direla oso tresna arriskutsuak.

Komunikabideetan etxealdiaz eta de-seskalatzeaz ari dira etengabe, baina, itxialdiaz zer? Neurrien zerrendetan ez dira ageri, eta premia dugu; berotzen hasi da Espainia sakonean, eta ziegetan neguko arropak dauzkate.

Preso gehienek 5. fasean beharko lu-kete, kalean, edo etxealdian gehienez ere. Deseskaladan ez, jada rapelatzan egon beharko ginateke. ●



ITXARO BORDA
IDAZLEA

Errota solas

Aitor dut, konfinamenduak iraun duen zortzi asteetan behin baino gehiagotan pasatu dudala kilome-troko distantzia, Baionan zeharreko ene oinezko ibilaldietan. Naizen ele-eiherak, aldi honetan, isiltasunaz eta bakartasu-naz gozatzeko aukera ukan du. Ohartu naiz hiriaren iparreko eremuak ez ni-tuela batere ezagutzen eta eihera aztar-nez aztarna paseatu naiz, haizeak, ibaiek edo itsas mareek bultzatu harri artean denbora nola ehotzen zuten ene begiz ikusteko xedez.

San Bernard auzoan, Habasko oiha-nean edo Bachefores eskualdean badi-ra oraino, ene haurtzaroko josta leku

zen Uhane ibai ertzeko eihera handiaren pareko egoitzak. Hura ere, Baionakoen antzera, utzikieriaz suntsitzen joan da, baina gelditzen da beti miresgarri, Ar-tzamendiko harkaitzetan ebaki errota-ren borobil perfektua. Zirkulu horren baitan gaude, eskerronez eta salbatuak, zekale edo espelta irina bezala ehoak, ogi bilakatzeko bidean.

Urrats debekatu horien karieta-ra asko ikasi dudala uste dut eta nola-bait ere, barnez aldatu naizela, birrindu agian edo ahurtaraz oratu. Labetik ate-ratzen naizela dirudit, jateko eta janari izateko gogoz.

Maskara jantziko dut sarri. ●

Gorpuztu, ez gorputu



ZIGOR ETXEBURUA URBIZU
ZINEGOTZIA

Donostiak kultur bizitza zabala du, sortzaile ugari ditu eta, modu batean edo bestean, kulturen parte hartu edota berarekin gozatzen dugu herritar gehienok. Donostia Kultura (DK) erakundeak bere jardueraz iaz egin zuen ebaluazioan aipatzen du euskarazko kultur eskaintza hazi egin dela 2015-2018 urteen artean, eta %27,5koa dela. Laurdena pasea besterik ez euskaraz, oraindik. Banuen horren susmoa, baina ez nuen pentsatu nahi hain testimoniala zenik, donostiarren %46 euskalduna eta beste %20 ia euskalduna (2016) izanik, orekatuxeagoa izango zelakoan.

Euskarazko kultur eskaintza handitzeko asmorik ba ote duen galdetuta, Eneko Goiaren izenean erantzun zuenak adierazi zigun, lehenik, (bere ahotik entzundako) datu hori hobeto zehaztea pentsatu dutela, agian ez zirelako behar beste zehatz jaso datuak... Gero, ipurdia bista-bistan zuela oharturik, esan zidan badutela eskaintza handitzeko asmoa, haur eta gazte alorretan (nola ez),

Euskaraz sortzen
den kultura
babestu, sustatu
eta lehenetsiko
duen erabaki
organikoa behar da

baina ez dutela indize jakin bat zehaztu 2020rako, ezta agintaldirako ere. Tira, erantzun hori uler nezakeen 2000 urtean, ez, ordea, 2020an. Hori horrela, urtarrilean, DKren Administrazio Kontseiluari proposatu genion kultur mahaia sortzea, arloko profesionalen eta eragileen iritzia entzun eta erabaki

adostuagoak hartzeko. Onartu bazuten ere, soilik literaturaren esparrura mugatua beharko zuen.

Eta horretan geundela, hara non etorri zaigun euskaraz sortzen duten kultur gileak kinka larrian utzi dituen COVID-19aren krisia. Lehendik zaurgarria bazen gure kultur ekosistema, orain erabat ilundu zaigu etorkizuna. Uneko egoera larriari behin-behinean erantzuteko erabakiak hartu dira (*online* eskaintza, hitzartutako emanaldiei eusteko konpromisoa...), baina euskaraz sortzen den kultura babestu, sustatu eta lehenetsiko duen erabaki organikoa behar da. Bai, lehenetsi, DKren ikastaro eta zerbitzuetan, Aste Nagusian, zinemaldietan, DFERian, auzoetako jailetan...; hezurretan baitago, bere etxean arrotz, albokoek platerekoa jaten dioten bitartean. Horregatik guztiagatik, euskaraz sortutako kultura lehenetsiko duen erabaki organiko bat behar da Donostian, euskaraz sortutako kulturak gure izatea gorpuzten jarrai dezan. ●

DATU PERTSONALEN BABESA
EUROPAKO ARAUTEGIA

Zure enpresa egokitzen
lagunduko dizugu



SIGACUS

☎ 943 453 588 · www.sigacus.com



tradebi@tradebi.com

MARCOS
okindegia

**Benetako
antzinako ogia**

☎ 943 450 966
Ubarburu pasealekua, 113
Astigarraga (Gipuzkoa)



ARGIA

Sasoi trumoitsu hauetan
inor ez dadila
ARGIArik gabe geratu

ALBOAN IZANGO GAITUZU



ARGIA txikitik eragiten
Komunitateak
komunitatea babesten du

[ARGIA.EUS/EGINARGIAKOA](https://argia.eus/eginargiakoa)


INDARKERIA ADIN

TXIKIKOEN FUTBOLEAN

Paradigma alda daiteke, borondaterik baldin badago

Kirola, eta futbola zehazki, balore hezitzaileak transmititu eta integrazioa sustatzeko bitarteko eraginkorra izan daiteke. Oraindik ere, baina, gizarteko beste esparru batzuetan nekez onartzen den indarkeria azaleratzen da asteburu, futbol zelai batean ez bada bestean; partidaren beroan ez bada, ezikusiarena egiten duen bulego hotz batean. Adin txikikoak dira askotan horiek sufritzen dituztenak, eta gizonezkoak gehienetan erantzuleak, izan guraso, jokalaria, entrenatzaile edo klubetako presidenteak. "Gutxiengo baten kontuak" direla esango digute, eta agian horrela da. Baina, orduan, zergatik ez dira errotik mozten?

 JON TORNER ZABALA



2018ko martxoan, Hernaniko Zubipe futbol zelaian jokatu-tako 14-15 urteko neska kade-teen partida batean, epaileak, hamazazpi urteko neska batek, gura-so batzuen irain sexistak jasan behar izan zituen. Baita partida amaitu eta aldageletatik atera ostean ere, harik eta beste aita eta ama batzuek egoera eten zuten arte. Gertaera horien harira, Udalarekin jarri ziren harremanetan klubeko ordezkariak, eta 2019ko aza-roan aurkeztu zuten sexu-jazarpen eta gehiegikeria kasuetan esku hartzeko protokoloa, zuzendaritzako kide, en-trenatzaile, langile eta jokalariek parte hartu zuten eztabaida prozesu “aberas-garri” baten ondotik. Ainhua Azurmen-di kirol eta berdintasun gaietan aditua izan dute bidelagun. “Futboleko maiz ikus daitekeen indarkeria hori guztia,

irain arrazistak... Beste leku batzuetan nekez onartuko liratekeen baina ki-ro-lean normalizatuta dauden jokabideak errotik mozteko borondate irmorik ez dago, ikuskizuna -negozioa- gailentzen den heinean”, esan digu EHUKo Psiko-logia fakultateko irakasle eta Avento aholkularitza-enpresako kideak. “Zigor gogorrakoak jarri beharko lirateke, eta denbora berean jendea hezi”.

“Maskulinitate hegemonikoa” ardatz duen kirolaren egituraketaz mintzatu zaigu, botere harremanez, klub edo-ta federazio batzuetan aginte-makila izateak ematen duen estatus sozialaz... Dioenez borondatea dagoenean posible da paradigma aldatzea, Hernanin ikusi ahal izan den moduan. “Askotan klubek ez dakite egoera bortitz baten aurrean nola jokatu, nahikoa formazio edo tresnarik ez dutelako, eta ondorioz

irizpide desberdinak dituzte gauza ba-koitzarentzat. Gizarteak ulertu du ema-kumeenganako indarkeriarik ezin dela onartu, baina klubeko araudietan deus ez badago jasoa horri buruz...”. Gainera, ezin esan daiteke goi-mailako futbola eredu izan ohi denik. Demagun, adibi-dez, sexu indarkeria prebenitzeko pro-tokoloak lantzen ari diren klub bateko ordezkariak esaten zaiela mesedez ez uzteko jokalariei aldagelan -leku be-rez intimo batean- argazkiak atera eta sare sozialetan zabaltzen, nazioarteko gida-lerroetan hala zehazturik dagoela eta abar. Lehen mailako futbolariak or-dea hori bera egiten dute, aldageletan kamerak sartu eta euren abdominal, galtzontzilo eta alkate jaunak -literal-ki- erakutsi. “Nola ulertaraziko diegu gazteei ez dela horrelakorik egitea ko-meni?”, dio Azurmendik.





MEZUAK ESTADIOETAN. Futbol estadioetan sarri ikusten dira arrazismoa, homofobia, sexismoa eta xenofobia salatzea helburu duten mezuak edota keinu sinbolikoak. Horiek errotik mozteko, dena den, erantzun irmoagoa behar da erakunde, klub eta jokalarien euren aldetik.

GAIZKI ULERTUTAKO MASKULINITATEA

“Jo dezagun infantil mailako partida bat jokatzekoa dela Zubipen, asteburuan goizeko 9:00etan”, jarri digu adibide moduan Martxelo Ezpondak, Hernani futbol taldeko presidenteak: “Nortzuk inguratuko dira hura ikustera? Jokalariak, entrenatzaileak, zelaiko ordezkaria, epaile bat eta gurasoak”. Beharrezkoa ikusten badu arbitroak eskumena dauka partida geratzeko, bera edo jokalaria iraintzen ari direnak kanporatuak izan arte. Zelaiko ordezkariak eskatuko die instalazioetatik irteteko eta, jaramonik egingo ez balute, udaltzainei hots egingo lieke. Horrez gain, biktimarekin hitz egingo litzateke eta bere nahia errespetatu, epaitzietan prozedura hasi edo ez jakiteko, aipatu protokoloan jasota dagoenez.

Gisa horretako gertaerak zigortzeari dagokionean, kontuan izan behar dugu ez liratekeela diziplina-sisteman sartuko, erasotzaileek ez dutelako lotura administratiborik klub edota federazioarekin –bazkideak izan ezean–, baina taldearen aurkako neurriak hartzea izango litzateke (zelaia ixtera behartu...) arbitroak aktan jasotakoa abiapuntutzat hartuta. Klubak zein lizentzia duen, horren arabera zigortuko da, Eusko Jaurlaritzako ordezkari Eli Altubek eta Amaya Gezalak azaldu digutenez (ikus koadroa).

Bere segurtasuna bermaturik ez da-

goela ikusiz gero, arbitroak erabaki dezake partida bertan behera uztea, Francisco Manuel Osoriok, Nafarroako futbol Epaileen Batzordeko kideak, kontatu digun moduan. “Zentzu horretan ikusi behar da zelaiko ordezkaria pertsona arduratsua ote den, egoera kontrolatzeko gaitasuna eta bere taldeko ikusleengana nolabaiteko eragina duena, edozein

Epaileak aktan jaso zuen gertatutakoa, instituzioek irain homofoboak gaitzetsi zituzten, hedabideetan agertu zen... eta Bizkaiko Lehiaketa Batzordeak klubeko presidentea ez zigortzea erabaki du, ez delako agertu arbitroak dioena berretsiko duen lekukorik

liskar erraz antzean konpondu eta arbitroak babesa sentitzeko. Zoritzarrez ordeza, iristen den lehenbiziko pertsona izendatzen dute sarri klubek ordezkari, zalerik sutsuena ez denean”. Bere hitzetan, Joko Arauak, Federazioetako araudiak eta lege orokorrak nahikoa izan

beharko lirateke indarkeria kasuak zigortzeko, “baina kasu oso larrietan baino ez dituzte aplikatzen”. Azken urteotan egoera nabarmen hobetu dela dio, hain ere, jada ez direla garai batean bezainbeste “basakeria” ikusten, nahiz eta irain eta protestak ia astebururo jasan behar izaten dituzten epaileak. Gazteak dira asko, hasiberriak, eta batere mesederik ez die egiten jendea etengabe orroka aritzeak. “Penagarria da neska eta mutikoek epaile ibilbidea uztea esperientzia txar bat sufritu dutelako”, esan digu Osoriok.

Pasa den urtarrilaren 4an, Muskizen, juvenilen bigarren mailako Muñatones eta Asti Leku B taldeen arteko partidaren atsedendian, zaleek ez baizik eta etxekoak presidenteak iraindu egin zuela salatu zuen arbitroak. Aldageletara bidean, lau haizetara egin zuen oihu: “Arbitroa putakume bat da, marikoa, marikoi konfirmatua gainera, kabroi bat, gure aurka egingo duena beti!”. Epaileak aktan jaso zuen gertatutakoa, instituzioek irain homofoboak gaitzetsi zituzten, hedabideetan agertu zen... eta Bizkaiko Lehiaketa Batzordeak erabaki du presidentea ez zigortzea, ez delako agertu arbitroak dioena berretsiko duen lekukorik. Epaile lanetan zortzi urtez aritu den 22 urteko gazteak esan du utzi egingo duela, jasandako erasoagatik baino gehiago, eraso horren ostean izandako babes faltagatik.

“Zenbat futbolari atera dira armairutik?”, galdetu du Azurmendik, gaiaz hizketan hasi garenean. “Gizarteko esparrurik zabalene-tako batean, aniztasun handikoa teoriaran... eta ia inork ez du pausoa eman. Zeren beldur dira?”. Mikel Garcia ARGIAko kazetariak *Futbole*an ez dago gayrik artikuluan dioen moduan, urratsa emango luketen futbolariak “erreferente itzela” lirarteke idolotzat dituzten haur eta gazte –eta ez hain gazte– askorentzat, “zer esanik ez euren sexualitatea garatzeko eta adierazteko beldur diren horientzat”. Baina markak babesletza erretiratu diezaieketelako, klubek eta agenteek zuzenean edo zeharka debekatu egiten dietelako, –gaizki ulerturiko– maskulinitatea nagusi delako zelaietan eta harmailetatik iristen diren irainetan... jokalariek armairuan gordeta jarraitzen dute.

“ZELAIAIN GERTATZEN DENA ZELAIAIN GERATZEN DA”

Arbitroak Hernanin jasan behar izan zituen orro matxisten harira, partida hartan etxekoen aurkari zen Eibar klubak, irainak haien jokalarien gurasoek jaurti zituztela-eta, adierazi zuen ez dituztela horrelako jarrerak onartuko, azpimarratuz “klubaz kanpoko pertsonak” izan zirela protagonista. “Klubaz kanpoko pertsonak”. Zenbatetan baliatu ote dute futbol taldeek ere aitzakia

hori, pilota besteren teilatura bota nahi dutenean?

Kasu honetan, dena den, Eibarrek “hartu zituen hartu beharreko neurriak”, publikoki jakinaraziko ez dituen arren, klubetik azaldu digutenez. Horren harira, “eta ez gertaera tamalgarri hori gertatu zela-ko”, taldeak Gure Balioak Eraikitzen egitasmoa jarri zuen abian, guraso, jokalaria eta erakundeekin balio hezitzaileen gaineko lanketa egiteko.

Duela hiru urte, bestalde, kadete mailako Hernaniko futbolari beltz bat iraindu zuen aurkariak. Ezpondak esan digu haien entrenatzailearekin lehenengo eta presidentearekin gero hitz egin zutela, jakinaren gainean jartzeko gutxienez. “Era-sotzailea gure taldekoa izan balitz, sexu jazarpenaren aurkako protokoloak jasotzen dituenak beteko genituzke, kasu desberdinetarako delako baliagarria. Mutilekin hitz egin eta neurriak hartuko lirarteke, barkamena eskatzera bultzatuzetik taldetik kanporatzeraino”. Hain zigor gogorrak, dena den, gutxitan ezartzen dituzte klubek. “Gisa horretako jokabideak ez dira onargarriak eta gertatuko ez balira hobe, baina ez doaz urrutiago. Ez nituzke partidaren tentsioarekin lotuko. Beroan, aurkariari ostiko bat eman eta aurrera. Uste dut gazteek ikusitakoa errepikatzen dutela futbol zelaian, ikasita dakartela. Eta berdin ikusleek”.



SEXU JAZARPENAREN ETA ERASOEN PREBENTZIORAKO PROTOKOLOA.

Ainhua Azurmendi kirol eta berdintasun gaietan aditua (ezkerretik bigarrena) eta Martxelo Ezpona Hernani futbol taldeko presidentea (hirugarrena), protokoloa aurkeztu zuten egunean, klubeko eta Udaleko ordezkariekin batera. / KRONIKA

“

Diziplinazko prozedurari heltzen zaionean, sistemak funtzionatzen du

”

Eli Altube Eusko Jaurlaritzako Jar-duera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzako zerbitzu buruak eta Amaya Gezala Kirol Justiziako Euskal Batzordeko idazkariak azaldu digutenez, kirol munduak badu bere baitan sistema berezi bat, diziplinazkoa; eta horrez gain, EAEko Kirolaren Legea dago, zehapen prozedura (zigortzailea) aurreikusten duena. Bi araubide daude beraz. Gertaera zehatz baten kasuan diziplinazko neurriak hartu ahal izateko, beharrezkoa da neurriak aplikatuko dituen kirol entitatearen eta gertaera/subjektu zehatz horren artean loturaren bat izatea. Esaterako, federazio batek antolatutako txapelketa batean lizentziak bermatuko du lotura hori, eta federazio horrek duen araudia aplikatuko zaio gizalegez jokatu ez duen entrenatzaile edota kirolariari. Era berean, klub bakoitzak bere diziplina-araudia izan dezake, eta Eskola Kirolak ere badu berea, Foru Aldundiek zehaztua. Diputazio bakoitzak bere araudia duenez, gerta daiteke modalitate berean ari diren adin bereko bi kirolarik lizentzia desberdina izatea, Eskola Kirolekoa bata eta federatiboa bestea, eta hortaz araudi desberdinak aplikatzea.

Diziplina-sisteman badago bigarren instantzia bat: Kirol Justiziako Euskal Batzordea, non tramitatzen diren aurrez federazioan edota eskolarteko kirolean jarritako zigorren errekursoak, ia guztiak gizonezkoen arteko liskarren ondorio direnak, Altubek eta Gezalak diotenez. Hortik, gehienetan aukera dago auzibidera jotzeko. “Azkenaldian askok hartu du bide hori. Federazioen aldetik jarrera aldaketa sumatzen da, indarkeria kasuak (irainak...) moztzen eta zigortzen ari dira. Agian batzuentzako zigorrak ez dira nahikoak izango, baina klub edota federazioek diziplina-prozedurari heltzen diotenean, sistemak funtzionatzen du”.

Francisco Manuel Osoriok ñabardura bat egiten du: “Egia da gizartearen bertute eta akatsak ikus daitezkeela futbol zelaietan, baina leku oso gutxitan, bakar batean ere ez ziurrenik, ikusleak ulertzen du sarrera bat erostean eskubidea duela builaka aritu eta beste pertsona batzuk iraintzeko, epaileak bereziki. Tristeia da 50 urteko gizon bat 15 urteko gaztearen aurrean pitokeriak egiten ikustea, gainerako zaleek imintziorik ere egiten ez duten bitartean”. Gaiaz hainbat artikuluko plazaratu duen Arnau Segura *Panenka* aldizkariako kazetaria ildo berean mintzatu zaigu: “Irainak gaitz endemikoa dira, bereziki erregional mailako futboleant. Guraso, klub edota federazioen erantzunaz galdetzen badidazu, burura datorkidan hitza epelkeria da. Beste aldera begiratzea, ezer pasa ez balitz bezala. *Zelaian gertatzen dena zelaian geratzen da perbertsoa*”.

“Egia da gizartearen bertute eta akatsak ikus daitezkeela futbol zelaietan, baina ziurrenik leku bakar ere ez du ikusleak ulertzen sarrera bat erostean eskubidea duela builaka aritu eta beste pertsona batzuk iraintzeko”

Francisco Manuel Osorio

Nafarroako Epaileen Batzordeko kidea

GURASO ENTRENATZAILE ETA EPAILEAK

Osorioren hitzetan klubak “egoista xamarrak” dira batzuetan. “Profesional mailakoak, adibidez, beren ultrengana gehiegi ez arrimatzen saiatzen dira, baina faborezko tratua ematen diete gero, jokalaria animatzen dituztela-eta. Aitzakia tristeia da. Berdina gertatzen da infantil mailan, aita eta ama batzuei gauza gehiegi onartzen zaizkie haien sostengua galtzeko beldurratik”.

“Zaila da guraso batzuei ulertaraztea beraiek ez direla ez arbitro ezta entrenatzaileak ere, gurasoak baizik”, dio Ezpondak. “Eskola kirolean ere ikusten dira gurasoak zelaian ertzean, zortzi urteko umeei aginduak ematen, builaka... Eskolan uzten ditugun bezala irakasleen esku, futboleant daude begiraleak, entrenatzaileak eta epaileak. Gurasoak alde



TENNESSEE STATE SOCCER

ARBITROAK izan ohi dira irain eta eraso askoren biktimak, zer esanik ez emakumezkoak baldin badira. Futbolaz denok dakigu besteak baino gehiago, eta edozein jokaldi baliatzen dugu parekoari ideia putarik ere ez duela esan eta, agian, harrikoa egiten-edo hobeto legokeela aurpegiratzeko.

batera geratu behar dira hein batean. Oro har ez da arazorik egoten, batzuetan ordea... Esaten badiezu seme-alabak ‘Alebinak B’ taldean sartu dituzula, eta ez ‘A’-n, haserretu egiten zaizkizu”.

Eskola kirolaren eta gehiago errendimenduari begira dagoen eredu federatiboaren arteko harremanaz luze hitz egin genezake. Bada aipatu nahi dugun balizko diskriminazio-faktore bat, dena den: lizentzien kostua. Azurmendik gogorarazi digun federazioetako lizentziak garestiagoak dira eskola kirolekoak baino, eta hortaz zentzuzkoa da instituzioek bigarren horren alde egitea, gazterik ez dadin baztertua izan lizentzia ordaintzerik ez duelako.

EREMU PRIBATUAN ESKU HARTZEA, ZAILAGOA

Monitore edo entrenatzaileek formazioa izatea ezinbestekoa dela diote solaskideek: “Umeekin hitz egiteko gaitasun psikologikoak ez dituzte landuak batzuetan, oihurik egin eta beldurrik eman gabe erakusteko”, esan digu Azurmendik. “Beste eredurik ez dute ezagutuko agian eta... 13-14 urteko neskatilekin entrenatzeko modu oso agresiboak ikusi ditut nik”.

Entrenatzaileei egin erreferentziak bide eman digu esparru pribatuago horretan –eguneroko jardunean– egiten den prebentzio lanari buruz galdetzeko Eli

Altube eta Amaya Gezalari: “Lehiaketa batean gertatutakoan jarraipena errazago egin daiteke, baina eremu pribatuan –entrenamenduetan esaterako– ematen diren kasuekin gauzak konplikatu egiten dira; erasoak sufritu duen pertsonak gertatutakoa salatu behar du, eta agian ez dago horretarako prest, edo ez du bere hitzak babestuko dituen lekukorik, edo uste du klubean pisua duen norbaiti aurre egiteak bere kirol ibilbidea trabatu dezakeela... Horrelakoetan zailagoa da esku hartzea”. Badira protokoloak, kanpainak egiten dira, Jaurilaritzak adibidez sexu indarkeriaren aurkako arreta zerbitzua (www.euskadi.eus/zuretaldekoakgara) jarri du abian, Ortzadar kolektiboarekin homofobiaren inguruko lanketa egingo du... baina klubek, federazioek eta gainerako eragileek protokolo horiek lantzen ez badituzte edota hain agerikoa ez den indarkeria detektatzeko tresnarik ez badute –normalizaturik dagoelako–, alferrikakoak izango dira hein batean.

Azurmendiren hitzetan, klub edota federazioetan jende berria sartzen ari den neurrian, eta emakumezko gehiago ari direnean futboleant edota erabakiguneetan, balore hezitzaileei garrantzia handiagoa emateko borondatea sumatzen da. Hortik beharko da tira egin, futboleant hain errotuak dauden botere-eskemak apurtu nahi badira. ●

«NAHIKOA DA GU KAKAREN PARE TRATATZEAZ»

Lakuako frontoiko kantxan daude sakabanatuta 51 esku-oheak.



Doris Casas, Cristian Rodríguez, Manuel Cantero eta Luis Álvarez osasun krisia bitartean Gasteizko etxegabeentzako ireki duten zentroan daude konfinatuta, Lakuako frontoian. Gure jendartearen sektore ezikusiarazitako bat krisia zer baldintzetan ari den bizitzen jakiteko asmoz hurbildu gara haiengana. Konfinamendu garaikoa ez ezik, hortik kanpoko beraien bizitza ere gurekin partekatu dute (azken orduko oharra: erreportaje hau inprentan sartzeaz dagoela, maiatzaren 15ean jakin dugu iturri ez ofizialetatik bi egun lehenago zentroan heriotza bat egon dela. Erakundeek ez dute heriotzaren berri eman, eta erabiltzaileei esan diete hitz erdirik ere ez esateko gertatutakoaz).

Espainiako Gobernuak konfinamendu agindua eman zue-nean, kalean lo egiten duten etxegabeentzako zentro bat ireki zuen Gurutze Gorriak (GG) Gasteizen, udalaren ardurapean. Pío Baroja eskolako 30 plazak laster bete ziren, eta zentroa Lakuako frontoira lekualdatu zuten. Ireki zenetik 51 plazak ia beteta izan dituzte. Erabiltzaileen %85 “etxegabeak” dira, beste %15 konfinamendu garaian kalean geratu diren pertsonak, bizi ziren pentsioa itxi dutelako edo bikotearekin apurto dutelako, esaterako.

Isiltasuna handia da frontoian, dagoen jende kopurua kontuan izanda. 51 plaza, 51 telazko esku-ohe frontoiaren kantxan ilaratan sakabanatuta, elkarrengandik ahalik eta aldenduen. Hiru emakume dira soilik, “beren” espazioa horman itsatsitako paper batek bereizten du. Esku-ohe bakoitzaren ondoan nork bere jabego gutxiak ditu pilatuta, batzuek aurreko eguneko tailerrean egin duten pape-

rezko lorearekin dekoratu dute. Kontrakantxan telebista handi bat dago, enpresa batek utzia, hiruzpalau lagun daude aspertu itxurarekin hari begira. Gutxi batzuk esku-ohean luze etzanda daude, izkina batean talde txiki bat hizketan, harmailetan bakarti pareta, erretzeko gunetik joan-etorrian beste zenbait. Konfinamenduaren zortzigarren astean gaude.

“EGUNERO BERO JATEN ARI NAIZ”

Doris Casas Fríasek 54 urte ditu, hizketa bizia eta umoretsua du. Gasteiztarra da. Amarekin egunero hitz egiten du telefonoz, arduratua dago alzheimerre garatzen hasi delako. 33 urteko semearekin ez da egon bi urtean, “momentuz ez nau ikusi nahi”. Ulertzen duela dio, semeaz aprobetxatu zela garai batean, “baina berreskuratzeko esperantza dut”. 2019ko maiatzetik bizi da kale gorrian: “Santiago kaleko kutxazainea egiten nuen lo”. Aurretik etxegabeentzako Aterpe udal zerbitzuan ematen zituen gauak.



Ezkerretik eskuinera: Cristian Rodríguez Pérez, Manuel Cantero Bustamante eta Luis Álvarez López.

“Bizitza eman dut ostalaritzan lanean, 20 urtetik gora ditut kotizatuak. Baina bizitza okerrak, drogek, lagunartek eta nik neuk... nirekin amaitu dute”.

Lehen egunetik dago Lakuako zentroan bizitzen. Ondoren elkarriketatu-ko ditugun beste hiru lagun moduan, esker oneko hitzak ditu GGko profesional eta boluntarioentzako: “Hasieratik dena izan da zaintza eta arreta”. Uneoro jardueraren batekin entretenituta egon daitezen arduratzen dira: zumba egunero, eskulanak... Enplegu edo ikastaroetarako akonpainamendua egiten ere saiatzen dira. Emakume batentzat zentroan bizitzea ez dela erraza dio. Baina haserre dago aurreko egunean zentroan gertatu den sexu-erasoaz zenbait hedabidek informatzeko izan duten moduarekin.

Konfinamendua amaitzean, bertan jarraitu nahiko luke, kariñoa, garbitasuna eta jatekoa duelako. “Bero jaten ari naiz. Kutxazaineen hainbeste denbora eman ostean nire onera etorri beharra nuen, atsedeen hartu, lo egin”. Casas pozik dago enplegu baterako aukera lortu duelako. Ostalaritza maite du, jendearekin tratua, “baina neska gazteak nahi dituzte soilik”. Konfinamendu osteko lehen egunean tabernek “kristoren dirutzarra” egingo dute, dio, barre algarak piztuz. Hiru hilabete daramatza kontsumitu gabe. “Borroka egin nuen, desanimatu nintzen ondoren, eta laguntzarekin ostera hasi naiz”. Bere semea berreskuratu nahi duela errepikatuko digu.

HAURTZARORIK EZ

Cristian Rodríguez Pérezek 24 urte ditu: “‘Ume bat zara, zer egiten duzu hemen?’, esaten zidaten hasieran”. Abiadura bizian hitz egiten du, irribarretsu uneoro. Iruindarra da jaiotzez, baina beti bizi izan da Gasteizen. “Gelditu ezin duzun tornado baten modukoa izan zen”, laburtu du Lakuako egotera eraman duen bideaz. Garai batean alokatutako etxe batean bizi zen bakarrik. Ondoren gela batean. Alarma egoera ezarri aurreko astean lanik gabe geratu zen eta hilabetera dirua amaitu zitzaion.

“Umetatik heldua izatea egokitu zait, ez dut haurtzarorik izan. Ama zaindu behar izan nuen 6 urte nituenetik, munduan gehien maite nuen pertsona, 18 nituela hil zen arte. Ez da ume batentzako bizitza”, dio Rodríguezek. Aitarekin ez da ondo konpondu: “Ez dut inoiz izan bere babesik, gorrotatzera heldu naiz”. Hiru anai-arrebekin harremana mantentzen du. “Bizitza behetik gora eskalatu behar den arrosa baten modukoa da. Petaloak lasaitasuna dira, baina bidean arantzak daude. Borrokatu beharra dago”. Antzeko irudiak errepikatuko dizkigu hiru zpalau aldiz.

Astebete darama Lakuako zentroan Rodríguezek. Bigarren egunerako erabat integratua zegoela dio: “Familia txiki baten antzekoa da, kariñoa hartzen diezu, pertsona onak dira”. Asko direla eta batzuetan tentsioak eta haserreak sortzea ekidinezina dela uste du. “Nik ere badi-

tut haserrealdiak, deabrutu egiten naiz”, dio irribarrez. Orduan harmailetara jotzen du bakarrik egoteko, edo rapera: “Inprobisatu egiten dut baina kantatu gabe. Barrenak husteko balio dit, hori hemen garrantzitsua da”. Elkarri eusten diote etxegabeek. Berari kosta egiten zaio laguntza onartzea baina, aldiz, ezin du eraman jendea txarto ikustea, eta laguntzekoa da oso: “Nire amak erakutsi zidana da, kabitua ezinezko bihotza zuen, bere legatua jarraitzen dut”.

“Batzuetan, nola gauden begiratu eta pentsatzen dut, ‘zer pena’. Gero diot, ‘zer pena eta zer penaondo, pertsonak gara’. Lakuako bizipena oroitzapen on baten moduan gordetzea nahiko luke, eta bertan ezagutu dituen pertsonekin harremana ez galtzea. Etorkizunari beldurrik ez diola dio: “Honek indarrak ematen dizkit lana eta etxe itxuroso bat bilatzeko”.

GOGORRENA ZUTAZ INOR EZ ARDURATZEA DA

Hizketan aritu garen bitartean Manuel Cantero Bustamante ondoko mahaian egon da koaderno baten marrazkiak koloreztatzen. “Lotsati xamarra naiz”, aurkeztu du bere burua hitz batzuk konpartitzeko proposatu diogunean, baina jarraian askatu da. Zamudioarra da, ama hiltzean Laudiora jo zuen. Konfinamendua hastean arrebak hartu zuen bere etxean, baina hilabete eta erdiren ostean kanporatu egin zuen. Aurretik bi urte eta

erdi zeramatzan kalean bizitzen. Buruko gaixotasuna du eta ezgaitasunagatik diru apur bat jasotzen du. Bederatzi urte egin zituen medikazioa hartzen. “Duela bi urte sustantziengatik utzi nuen”.

Zentroan pixkana lagunak egin dituela dio, baina beste batzuekin elkarbizitzak arazoak sortzen dituela. Denbora pasa dadin jarduera guztietan parte hartzen du. Ordu asko ematen zituen pasioan bere txakurtxoarekin, eta bien falta handia du, pasio luzeena eta arrebarenean geratu den txakurrarena. Berarekin gaudela tenperatura hartzen dio GGko boluntario batek –egunean bi aldiz egiten dute–, ez dio kutsatzeari beldurrik: “Gauza okerragorik egin dut eta ez naute akabatu...”, dio umoretsu.

Jendearen beldurra bai sumatzen du, eta ulerkor azaldu da: “Horregatik bota ninduen nire arrebak. Ostalaria zen, enplegurik gabe eta langabezia txikiarekin geratu zen, bi umerekin. Eta nirekin, baldar hutsa nintzela”.

Kontsumitzeari utzi dio Canterok, “hilabetea eta zortzi egun daramatzat garbi”. Nahi eta behar duena desintoxikazio gune batean sartzea dela dio, eskaera eginga du eta ordu batzuk barru du lehenbiziko elkarriketa zentrokoekin: “Energia falta zait, baina borondatea badut eta pertsona onen laguntzaz lortuko dut”.

Agur esan diogu elkarri, baina zer edo zer gehiago esan nahi duen galdetzean hunkituta erantzun du: “Iragan astean amaren heriotzaren urteurrena izan zela, eta baita arrebarekin harremana berrartu nuen eguna ere. Deitu eta zer moduz dagoen galdetu nion, ordutik egunero hitz egiten dugu. Aste bat eman nuen inoren berri izan gabe. Zutaz inor ez arduratzeak isolatuta egoteak baino min handiagoa ematen du”.

“NAHIKOA DA KAKAREN PARE TRATATZEAZ!”

Luis Álvarez Lópezek hitz egin nahi duela esaten digu: “Argitu nahi dizuet nola funtzionatzen honek”. Lehenbiziko kritika udalarentzako da, eta argi utzi nahi du GGa ondo ari dela berea egiten. Baliabide hau zerbitzu sozialen menpekoea eta udalaren ardura politikoa dela gogoratu, eta salatu du zentroak irekita daramatzan zortzi asteetan udalaren aldetik gizarte langileak soilik pasatu direla, behin bakarrik: “Hamar minutuz, ‘mantendu distantziak’ errepikatzen soilik”. Álvarezek ustez, bost axola die nola eta zer baldintzatan dauden. “Beno, guk egunero bidaltzen ditugu txosten

pertsonalizatuak”, ñabartu dio entzuten ari den GGko langileak. “Baina niri esan didazue ez dietela txostenei inongo kasurik egiten”, erantzun du Álvarezek, eta langileak arrazoiak eman dio.

Zentroaren gabeziak zerrendatzeari ekin dio jarraian. Ondoan futbol zelai handi bat dute, baina itxia ez den gune bakarra 50 metro koadrora murriztu die poliziak –50 pertsonarentzako– ikusmena eragozten duten hesi altu batzuekin, bizilagunak kexatzen direlako, antza. Agureen dieta egiten dute, zahar etxeetako berbera delako: “Purea, arraina, indioilarra. Etengabe”. Bi hilabeteren ondoren muturreko larrialdientzako esku-ohetuek estuetan lo egiten jarraitzen dute: “Esango didazu udalak ez dituela 50 koltxo madarikatu?”. Bizitza osoa espazio bakarrean egiten dute, inongo intimitaterik gabe, tartean buruko gaixotasunak, adikzioak, jarrera agresiboak dituzten pertsonak: “Espazio bakar bat ere ez dugu arazoak ematen dituzten pertsonentzako”. Ezin dute kalera irten GGren txaleko gorri deigarria jantzita ez daraman langile batekin ez bada: “4. Bko bizilagunari ere lagundu behar diote estankora, estigmatizatuz? Zergatik niri bai?”.

“Orduak eman nitzake”, azaltzen du Álvarezek: “Nahikoa da gu kakaren pare tratatzeaz. Gasteizko zaborra garenez, zer gehiago nahi dugu? ‘Zertaz kexatuko dira kartoi artean egiten badute lo?’”. Sindikoarekin eta udaleko talde politi-


koekin harremanetan jartzen saiatu da: “Hona ez da inor gerturatu, eta prentsa datorrenean inork ez du gurekin hitz egiten”.

57 urteko gasteiztarra da Álvarez. Aitak eraikuntza enpresa txikia zuen eta harekin egiten zuen lan, baina behea jo eta itxi egin zuten. Ordutik tabernari, topografo, artzain, patata jasotzen... egin du lan. “Hori egin dut bizitza osoan, lan, lana egon den bitartean”. Urte batzuk dira patata jasotzeko garaiko lana lortzen duela soilik: “57 urterekin bizitzatik urruntzen ari naute”.

Urte eta erdi dela geratu zen etxegabe. Olarizu auzoan okupatu zuen, azken urteetan berdina egin duten beste hamarnaka gasteiztarrek bezala. Justu konfinamendu aurretik alde egin zuen bertatik, “bestelako arazo” batzuek. 100 pertsona izatera heldu zirela dio, familiak, herrialde ezberdinetakoak, ijitoak, paioak... oro har ondo konpontzen ziren. “Dozena bat zeuden oso gatazkatsuak, *El Correo*-k etengabe hitz egiten zuen haietaz”. Udalaren kriminalizazio kanpaina gogor salatu du: “Esaten digute: ‘Zuena bai kopeta, etxea musu truk nahi duzue’. Alkateak prentsaren bidez San Antonioko Gizarte Larrialdietarako Zerbitzuetara bidaltzen zaitu, joan eta esaten dizute ez dagoela tokirik inon”.

Osasun krisia amaitzean haiekin zer gertatuko den galdetu diogu Álvarez: “Argi dago, denak kalera, eta alkateak esango digu San Antoniotik pasatzeko”. ●

Doris Casas Frías, eta hondoan Gurutze Gorriko zentroko arduradun Joseba Etxebarria Guinea.



UGO MAYOR MARTINEZ

EHUKO IRAKASLEA ETA IKERBASQUE IKERLARIA

"PCR test masiboak egingo balira, ez legoke jende guztia eduki beharrik konfinatuta"

Apirila hasieran jakin genuen berak koordinatutako ikerlari taldeak COVID-19 atzemateko PCR proba bat garatu zuela, eskas ziren test komertzialik behar ez duena. Munduko Osasun Erakundeak test masiboak egitea gomendatzen du koronabirusaren hedapena saihesteko eta hala egin dute pandemiari gehien eustea lortu duten herrialdeek. Aldiz, euskal agintariek ez dute proba masiboen aldeko apusturik egin orain arte.

Bitartean, Jaurlaritzako Osasun sailaren gonbidapena onartuta, PCR proba hau sortu duen ikerlari taldeak parte hartuko du Espainiako Carlos III. Osasun Institutua pandemiaren prebalentzia edo hedapena neurtzeko egiten ari den ikerketaren bigarren eta hirugarren faseetan. Ikerketa horren lehen fasearen emaitzak maiatzaren 13an ezagutu dira: Hego Euskal Herrian %4,4k soilik ditu garatuta birusaren aurreko antigorputzak, eta orain arte kutsatutakoak askoz gehiago dira (127.000tik gora), Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak egun horretara arte adierazitako kopurua baino (26.000 inguru).

Hamar lagin jaso ditugu bi egunetan. Dagoeneko 100-200 jasotzea espero genuenean" ekin dio telefonoz bestaldean kontaktari Ugo Mayorrek. Jakinmina eta entusiasmoa kutsatzen ditu bere tonuak: "Carlos III. Osasun Institutuaren lan honetarako hiru laginketa egingo dira, hiru asteko tartearekin bata eta bestearen artean. Baina Jaurlaritzako Osasun sailarekin gure hitzarmena presaka eta azken unean sinatu zenez, bigarren eta hirugarren erronda soilik egin ahal izango ditugu ondo, eta horregatik planteatu genuen lehen erronda hau froga pilototo txiki bat egiteko baliatzea". Indautxu eta Urdulizeko osasun zentroekin egiten ari diren froga pilotoarekin bigarren egunean egin dugu elkarrizketa, maiatzaren 8an. Pozik da bi zentro hauetan jasotako laguntza logistikoarekin, eta laginketa honi duen garrantzia eman zaiolako bertan. Hurrengo pausoa laginketa hau EAE osoan dauden 59 osasun zentroekin egitea izango da: "Egunean 500 lagin jaso beharko ditugu hurrengo bi errondetan, eta ziurtatu nahi dugu ordurako gauzak ongi joango direla".

Zehazki zer da PCR testarekin aztertzen duzuen eta zer alde dago test azkarrekiko?

Proiektu hau Carlos III. Institututik datorren ikuskeraren bat da, jakiteko zer prebalentzia duen birusak, hau da, zenbateko hedapena duen. Eusko Jaurlaritzako Osasun sailak proposatu digu ikerketa serologiko horretan azpi-proiektu bat aurrera eramatea, guk EAEko laginei PCR probak egin eta diagnostikoa sakonagoa izan dadin. Izan ere, bi test mota daude eta bakoitzak gauza bat neurtzen du: test serologiko edo "test azkarak" neurtzen du nor pasatu duen noizbait koronabirusa, test horrek atzematen dituelako birusarekin kontaktuan egon denak garatu dituen antigorputzak. Hori da Carlos III. Institutuak martxan duen ikerketak neurtzen duena. Baina test horrekin ezin da jakin pertsona horrengan orain birusa aktibo dagoen edo ez. Beraz, PCR testak erabiliko dira EAEko diagnostiko hori osatzeko. Izan ere, PCR testak koronabirusaren material genetikoa detektatzen du eta beraz, jakin daiteke pertsona horrengan une honetan birusa aktibo al dagoen, hau da, pertsona hori momentu honetan besteak kutsatzeko gai den.

Test serologikoen arazo nagusia da, pertsona batek birusa izan arren testa ez dela gai lehen 8-15 egunetan detektatzeko.



UGO MAYOR MARTINEZ. Euskal Herriko Unibertsitateko Biokimika saileko irakasle eta Ikerbasque ikerlaria da. Bere 44 urteetatik bi Suedian eman ditu eta beste hamaika Erresuma Batuan, zientzialari ibilbidea garatzen.

ko, eta epe horretan pertsona hori besteak kutsatzen ari da. Horregatik aldarrikatzen dugu, bi testak izan daitezkeela baliagarriak, baina momentuan infekzio arriskua dagoenean, beharrezkoa dela jakitea une horretan nork daukan aktibo birusa, pertsona hori isolatu ahal izateko. Horrela gainera, ez legoke jende guztia eduki beharrik konfinatuta: zer motibo dago une honetan kutsatuta ez daudenak ere konfinatuta edukitzeko?

Espainiako Gobernuak maiatzaren 12an agindu du sintomak dituzten herritar denei PCR proba egiteko

24 ordu pasa baino lehen, kutsakorrak diren pertsonak aislatzeko. Aldiz, badirudi Eusko Jaurlaritzak balio handiagoa ematen ari zaiola test serologikoen bidez, jakiteari dagoeneko zenbatek pasatu duten birusa. Bi estrategia daude?

Bai, horrela da. Guri bileretan hasieratik izan dugun interlokutoreak esan digu lehentasuna test serologikoak zirela. Nahiz eta mundu mailan jasotzen ari garen datuek esan oraindik populazioaren oso zati txikiak pasatu duela birusa. Test serologikoen estrategiak zentzua luke, herritarren 3/4ak positibo emango balu,

baina zenbait ikerketen berri izan dugu eta hauetan ikusitakoa da %5-10ak soilik pasatu duela birusa, eta sintomarik ez duten pertsonak birusa zabaltzen jarraitzen dutenean, gaitza pasatu duten gutxi horiek nortzuk diren jakinda ez zoaz inora. Test serologikoen aldeko estrategia hori ez dugu ulertzen.

Test serologikoak publikoak dira ala marka komertzial batek ateratakoak? Gehienetan komertzialak dira.

PCR testak masiboki egitea izan liteke koronabirusa geldiarazteko irtenbide eraginkorrenetakoa. Baina hori egiteak baditu bere zailtasunak, ezta?

Bai, argi dago PCR masiboki egiteko gauza gehiago ere behar direla, ez testa soilik. Horrelako estrategia bat martxan jarri ahal izateko lehenik osasun sare osoa egon behar da indartuta, demagun, egunean 50.000 test egin ahal izateko: gaitasun teknologikoak izan arren ez badago osasun langilerik laginketa egiteko, ezinezko da egitea. Osasun sistema indartsua behar da, edo kontratazio gehiago egin...

Behar den beste gauza bat trazabilitatea da. PCR emaitza positibo ematen dutenen kontaktu sarea deskribatu behar da eta ziurtatu behar da positibo eman dutenen inguruko pertsonak ere lehenbailehen testatzen direla, edo gutxienez jarraipen bat egiten zaiela egun batzuetan zehar.

Azkenik, kontrolaren gaia ere tartean dago: esan digute guztiok geratu behar dugula etxean, eta horrela kontrolatzeko errazagoa da, inor ezin delako kalean egon. Zailagoa litzateke, adibidez 2 milioi biztanleko gure herrian positibo eman duten 13.000 pertsona kontrolatzea, kutsatu horiek eskatzen zaiena betetzen dutela ziurtatzea. Hori lortzeko ere egitura bat behar da martxan.

PCR masiboek behar duten diseinu hori guztia ez dakit ea planteatu den edo ez.

PCR testen bidez jendea benetan kutsatuta dagoen edo ez jakin gabe deseskaladari ekitea zer iruditzen zaizu?

Txanpon bat airera botatzea. Hori da deseskaladarekin egin dutena. Ea beroarekin transmisioa txikiagoa den eta dagoeneko jendeak ikasi duenez pertsonen artean distantzia gorde behar dugula, maskarak eta gainerakoak, ea horrekin hedapena mugatzen dugun. Txanpona airera botea dago, eta atera daiteke ongi edo ez. Gaizki ateratzen bada posible da hiru



aste barru berriz konfinamendurantz jo behar izatea. Hori denborak esango du, biak dira aukerak.

Test hau garatu zenutela jakin zenetik hainbat sinadura bilketa egin dira berau ahalik lasterren aplikatzeko eskatuz. Uste duzu eragina izan dutela?

Gauza bat utzi nahi dut argi: Ez sinadura bilketa bat eta ez bestea abiatu dituztenean, ez dira gurekin harremanetan jarri galdetzeko zer iritzi genuen ekimen horiei buruz. Beren kabuz sortu eta beren bizitza propioa duten ekimenak izan dira.

Une batzuetan izan du eragina bai, baina mota guztietakoa: oihartzun handiagoa izateko batetik, baina baita ere eragina izan du, norbaitek ulertu duelako jaso nahi ez zuen presio bat sortzen ari zitzaioela, eta horren ondorioz gure ekarpena beste begi batzuekin ikusi du.

Sentsazio nahasia geratu zait, gure lana lotu delako sinadura bilketa horrekin, eta gure lana errezeloz begiratu delako. Guk hasieratik nahi izan duguna osasun sistemari laguntzea izan da eta ondorioz, Eusko Jaurlaritzari ere bai, eta eduki dugun sentsazioa izan da guztiz

alderantziz hartu dela, hau da, gure lana eraso bat egiteko garatu bagenu bezala ulertu dutela.

Hurrengo batean aplikazioa azkarrago etorri dadin egin daitezke gauzak desberdin?

Nik uste zientzialari bezala ez genukeela gure ekarpena desberdin planteatu behar. Agian beste estamentu batzuk planteatu beharko lukete. Gauzak bideratzeko garaian, alde batzuetatik babes handia egon da baina beste leku batzuetan badirudi ez dagoela larrialdi egokiarik inola ere, eta pasatu daitezkeela asteak dauden tresnak martxan jarri gabe edo larrialdi egoera batean tresna horiek duten garrantziari balioa kenduz. Zientzialarion aldetik ez dut ikusten zer egin beharko litzatekeen desberdin hurrengo batean hobeto egiteko, ze arazoa beste nonbait egon da.

Gure buruari autokritika egiteko, esan nezake oihartzun handiegia eman diogula hasieratik egindakoari? Baina ez, zeren beste zentro batzuek, adibidez Biogunek, guk baino lehenago planteatu zuten antzeko zerbait, eta haien kasuan publiko ez egin izanak ez die lagundu haien ekarpena hobeto bideratzeko,

denbora askoz gehiago galdu da gurean baino. Gure kasuan lortu bezain laster atera ginen publiko egitera, ikusgarriago egin da, eta horrela lortu dugu Carlos III. Osasun Institutuak antolatutako laginketan gurekin kontatu izana.

Bost ikerlarik ekin zenioten test hau garatzeari. Nola piztu zen hasierako txispa hori eta nola pasa zineten 55 ikerlari sarean lan egitera?

Martxoko ostegun batean esan zitzaigun: "Bihartik aurrera ikasleak ezingo dira unibertsitatera etorri". Egun horietan irakurri zitezkeen bi berrialdi berean: batetik, Osasunaren Munduko Erakundeak eskatzen zuela askoz test gehiago egin behar zirela, eta bestetik, oso sintoma larriak zituztenei soilik egingo zitzaizkiela testak. Bi berriak aldi berean irakurrita, esaten genuen: nola da hau posible? Unibertsitatean baditugu tresnak askoz PCR gehiago egiteko, eta herri honetako teknologia zentro guztiak kontuan hartuz gero, askoz PCR gehiago egin daitezke.

Asteburu hori pasatutakoan ikusi zen lehentasunezkoa ez zen guztia gelditu egin behar zela, eta ezagutzen nituen beste ikerlari batzuei deika hasi nintzen, galdetzeko ea nork zituen PCRak. Hitz egi-

ten behintzat hasi nahi genuen, ea zen-bat test egiteko gai izango ginatekeen, zer erreaktibo lortu beharko liratekeen, zein leku ditugun eskuragarri hau egiteko... Whatsapp taldetxoak sortu genuen eta hasi ginen identifikatzen ea zein laborategi eta zein aditu zeuden inguruan, eta horiek kontaktatu genituen. Alde batetik, adituak behar genituen PCRak egiteko, baina izan zitekeen norbait landareekin lan egiten duena, beste bat garunekin lan egiten duena... baina baita ere behar genuen mikrobiologiako jendea. Biologo batzuek ere kontaktatu genituen... oso jakintza arlo anitzetako taldea elkartu ginen. Pixkanaka joan ginen definitzen zein arlo ziren garrantzizkoak, nola planteatu zitekeen proiektu bat, eta aste horren bukaerarako dagoeneko Ikerkuntza Errektoreordetzan proiektu oso bat aurkeztu genuen idatziz.

Errektoreordetzari oso aproposa iruditu zitzaion proposamena eta hurrengo astean Maria Goiri eraikina atontzen hasi ziren ikerketa honetarako. Astebate behar izan zen egokitzeke, eta bakoitzak gure laborategitik genituen tresnak eraman genituen eraikin horretara. COVID-erako erreaktibo bereziak eta material zehatzak soilik erosi behar izan genituen. Hori egin bitartean, harremanetan jarri ginen Gurutzetako mikrobiologia taldearekin, eta hasieratik oso lagungarri izan ziren laginak pasa zizkiguten.

PCR testak lehendik ere egiten baziren zuen zientzietan, zein izan da zuen ikerketaren ekarpena?

Gure kideetako batek erabili duen metafora hau da: kafea egiteko kapsulak eta beste moduak alderatu ditugula. Ospitaleetan PCR testak egiteko erabiltzen dituzten teknikak kafe kapsulak bezalakoak dira: kutxa beltz batean alde batetik sartzen dute gaixoaren lagina, horri gehitzen zaizkio dagoeneko prest eta enpaketatuta dauden elementuak, eta kutxaren bestaldean emaitza agertzen da, koronabirusaz kutsatuta dagoen edo ez esaten duena.

Zein zen arazoa? Momentu horretan hain zen handia eskaria, erreaktiboak (kafe kapsulak) ez zeudela eskuragarri merkatuan. Guk esan genuena izan zen: badakigu kafea modu ezberdinetan egiten, ez dugu kapsularik behar. Goazen planteatzera zein den modu eraginkorre-na COVID-19a detektatzeko: eskala handian egin daitekeena, elementu toxikorik gabe, modu sinpleenean eta erosi daitezkeen materialak erabilia. Gure ekarpena hori izan da: kit komertzialen stock

arazoa zegoenean, protokolo bat osatzea, dekonstrukzio bat egitea. Berez ez genuen ezer berririk asmatu, baina bai erakutsi dugu arazo berri eta larri baten aurrean innobazioa etorri daitekeela oinarrizko metodologiak erabiltzetik ere.

Oso azkar garatu duzue ikerketa. Zer dago azkartasun horren atzean?

Hain departamendu ezberdinetako hainbeste jende aritu gara, bakoitza berean aditu izanik osagarriak ziren alorretan... horri esker askoz potentzial handiagoa lortu dugu, edozein taldek bere kabuz egin balu agian sei hilabete beharko litzuke. Guztion artean lortu den sinergia, gogo eta esfortzuekin posible izan da hamar egunean hau lortzea. Astelehene-tik igandera buru-belarri aritu gara lanean eta telematikoki elkartzen. Baina bakoitzak bere burua estutu du, ez da egon inor goitik, alderantziz, gure ekimenez sortua izan da, eta oso lan giro polita izan dugu, hunkigarria ere bai. Eta batzutan zailtasun handiekin egin dugu topo, alar-ma egoerak eragindako protokoloengatik: lanera joateko fitxak bete beharra, campusera sartzeko zeuden segurtasun operatiboak gainditzea... Baina hainbesteko energia positiboa eduki dugu, ez baitugu utzi horrek gu gainditu gaitzan.

Zer da gorputzetik hartzen duzuen lagina?

Infektatuta eta kutsakor gaudenean, faringean pilatzen dira birusaren milioika partikula. Bai ahotik edo bai sudurretik (hobe sudurretik), bastoitxo bat sartzen da faringeraino eta muki pixka batekin batera ateratzen dira birusaren partikulak, hau da, birusaren repositorioa. Ateratako lagin hori hodi batean sartzen da: hodiak birusa hiltzeko osagaiak ditu baina aldi berean birusaren material genetikoa babesten du. Hodia laborategira eramaten da, eta lehenik, material genetikoa erauzten da bertatik, eta ondoren, material genetiko hori anplifikatu egiten da, detektatu ahal izateko.

Bai erauzketaren pausorako eta bai detektziorako, kit komertzialak erosi daitezke. Material falta erauzketarako kiten kasuan egon da eta hori da guk erakutsi duguna, metodo tradizional batekin posible dela erauzketa egitea, eraginkortasun oso handiarekin.

Birusaren material genetikoa anplifikatu egiten duzuela azaldu duzu, detektatu ahal izateko. Nola anplifikatzen da?

Irudikatzeke, fotokopiak egitea bezala da. Hasierako lagina kopia bakarra izango bagenu bezala da, eta fotokopiagailuan sartuta, lehen zikloan bi kopia lortzen dira, baina bi horiek berriz fotokopiagailuan sartuta, lau kopia lortzen dira. Eta horrela joatean dira kopiak bikoizten nahi adina bider. Pertsona bakoitzak duen birus kargaren arabera, kopien 20-35 ziklo eginda detektatzen da birusa. Beraz, makina horretan nahikoa da birusaren lau molekula sartzeko, detektatu ahal izateko. Horrela ikusi dezakegu, batetik, pertsona hori kutsatuta dagoen, baina baita ere zenbat karga biriko duen gaixoak.

Ikerlarien lana mundu mailako lasterketa oso lehiakor bat bezala irudikatzen dugu. Zuek, aldiz, garatu duzuen protokolo unibertsal hasieratik denen eskura jarri duzue webgunean. Jakintza librean izan ditzake abantailak zientifikoki gauzak garatzeko?

Pertsona eta laborategien arabera, batere sana ez den lehia hori egoten da, bai, emaitzak argitaratu aurretik. Horrelakorik ez da egon kasu honetan: informazioa prozesu osoan zehar partekatu dugu beste zentro teknologikoetako jendearekin, pentsatzen genuelako horri esker jende horren iritzia jaso genezakeela, eta gure ikerketa azkarrago garatu ahal izateko lagunduko zigula. Nire ustez, ikerkuntza munduan askoz eragin-korrago funtzionatu daiteke ez badago irabazteko premiarik, helburua konpon-bidea ahalik lasterren bilatzea bada.

Sistema konbentzionallean ere, ikerketa argitaratzen duzun unetik denen eskura jartzen da. Zentzu horretan, komunitate zientifikoak wikipediaren antzera funtzionatzen du, jakintza guztia aurreko jakintza guztiaren gainean eraikitzen da. Baina ikerketa guztiz amaituta dagoenean argitaratzen da, protagonismo osoa ziurtatzeko. Gainera ikerlariok ez badugu argitalpenen bidez gauzak egiten ari garela erakusten, ez dugu proiektuetarako dirurik lortzen. Eta gainera, beste norbaitek gauza bera ikertu eta emaitza lehenago argitaratzen badu, dagoeneko ezin da zure ikerketa argitaratu, eta ordura arteko lan guztia pikutara joaten da.

Guk berriz, ikerketa honen emaitzak gure webgunean argitaratu ditugu ahalik lasterren, denen eskura izateko, eta zenbait jenderen galderak jaso ditugu. Oraingoz ez dakigu dagoeneko lekuren batean aplikatzen ari ote diren. Denbora esango du ea horrela den. ●

MIREN ARTETXE, BERTSOLARIA

«Helduen kulturarekiko haustura bera da hizkuntzaren jarraikortasuna bermatzen duena»

Koronabirusaz baino hitz egiten ez den garai hauetan, arnasa pixka bat eskaini digu Miren Artetxek (Hendaia, 1985). Euskaraz, gazte identitateaz, bertso eskolez eta abarrez izan dugu solasaldia, duela gutxi aurkeztu duen tesiaz, alegia.

 MALEN ALDALUR AZPILLAGA
 DANI BLANCO

Konfinamendua tarteko, pantailatik pantailara egin da elkarrizketa hau, salatik salara. Bere bizipenetatik abiatuta eta Mintzola fundazioak eta Mikel Laboa katedrak diruz lagunduta osatu du *Ipar Euskal Herriko bertso-eskoletako gazteen hizkuntza ibilbideak: gazte identitateak, hizkuntza mudantzak eta legitimizazio prozesuak* tesia Miren Artetxe irakasle eta bertsolariak.

Ohituta gaude gazteek euskaraz zergatik ez duten hitz egiten galdetzeraz, zuk galdera aldatzea erabaki duzu. Zergatik egiten dute euskaraz?

Bidegabea iruditzen zait euskaraz zergatik ez duten egiten galdetzea, badirudi kargu-hartzea dagoela horren atzean. Esaten ariko bagina bezala guk lan handia egin genuela beraiek D ereduan ikas zezaten, dena eskura eman diegula, eta hala ere, ez dutela euskaraz egiten. Baina kontuan izan behar dugu, aldi berean,

gizartea den bezalakoa dela, eta normala da, batez ere erdal guneetan, gazteek euskaraz ez egitea. Gazteei oso gutxi entzuten zaiela uste dut, eta ikerketaren helburua hori ere bazen.

Ipar Euskal Herriko bertso eskoletako gazteen hizkuntza ibilbideak aztertu dituzu. Zertaz ari zara hizkuntza ibilbideez ari zarenean?

Beraien bizitza ibilbidean hizkuntzeekin izan duten harremanaz galdetu diet, eta ea aldaketarik egon den edo ez. Baina ez bakarrik zein harreman izan duten hizkuntzarekin, baizik eta eduki dituzten harremanak nola aldatu diren eta horietan zein hizkuntza erabili izan duten. Adibidez, imajinatu Lehen Hezkuntzan lagunekin euskaraz hitz egiten duzula eta anai-arrebekin ere bai; gero beste eskola batera joaten zara eta beste harreman batzuk sortzen dituzu, frantsesez. Garrantzitsua da hizkuntza ibilbideak ulertzea ibilbide bezala, bidegurutzeak eta aldaketa momentuak daudelako, eta horiek denek zentzu bat hartzen dutelako norbere bizitza ibilbidean. Ez da hainbeste zein hiztun mota zaren, une horretan zein hizkuntza erabiltzen duzun baizik. Jendeak euskaraz hitz egitea nahi badugu ikusi behar dugu nola sortu horretarako guneak eta uneak, eta ulertu beharko dugu zein aldaketa modu dauden. Oso konplexua da.

Gazte identitateari garrantzia eman diozu.

Gazte identitatea gazte kulturarekin lotuta dago. Garai batean oso argi zegoen noiz pasatzen zinen ume izatetik gazte izatera, esaterako, mutilen kasuan galtza motzetatik luzera igarotzean. Gaur egun trantsizio hori ez da horrela gertatzen. Epe luze bat dago ume izatetik heldu izaterako tartean. Etapa hori garrantzitsua da bere horretan, zure hurrengo faseetan edukiko dituzun hizkuntza harremanak ere baldintzatzen dituelako. Iruditzen zait gutxiegi begiratzen diogula gazte etapari, baina aldi berean

paradoxikoa da, izan ere, ikerketa pilo bat daude gazteen inguruan. Hau bereziki bi arrazoiengatik gertatzen da: alde batetik, ikusi nahi dugulako gizartea nolakoa izango den etorkizunean; eta bestetik, oso harrapakin errazak direlako ikerketetarako, izan ere, denak daude ikastetxeetan sartuta.

Bidegabea iruditzen zait gazteek euskaraz zergatik ez duten egiten galdetzea, badirudi kargu-hartzea dagoela horren atzean”

Tesian zu ere bazeude, eta honela dio zure etnografiaren pasarte batek: “Nota onak ateratzen nituen, ez nuen erretzen eta sozialki ez nintzen bizkorrenetakoa. Frantsesez hitz egiteko beharrik ez izateko adina pribilegio ez nuen nik”.

Institutura pasatzen zarenean beste inguru sozial bat sortzen da eta gazte moduan aurkeztu behar zara bertan. Aurkezpen hori zure praktiken bidez egin behar duzu: izan daiteke musikaren,



janzkeraren edo hizkuntzaren bitartez. Hizkuntzarena praktika bat gehiago da, baina kasu batzuetan oso indartsua izan daiteke. Iparraldean, nik bizi izan nuen kontestuan oso inportantea zen. Azken finean, gazte batek nahi duena da bere harremanak modu egokian eta ahalik eta modu horizontalenean garatu, jakinda hierarkiak daudela. Egoera horretan kokatzeko tresna urriak dituzu, eta horiekin jolastu behar duzu, hizkuntza horietako bat da. Oso normala iruditzen zait beharra sentitzen duen horrek erabiltzea.

Bertso eskolak aztertu dituzu praktika-komunitate gisa. Zer esan nahi du horrek?

Oso sinplea da: modu nahiko erregularrean praktika bat egiteko elkartzen den talde bat da, zeinaren inguruan talde izaera bat sortzen den. Kasu honetan bertso eskolaz ari gara, baina izan daiteke antzerki taldea, eskubaloia taldea, gazte asanblada edo beste edozein praktika. Jarduera-komunitatetan identitate pertsonala sortzen joaten da. Komunitate asko ditugu eta horietan denetan gure identitatea garatzen goaz. Interesgarria da ikustea talde bat dagoen momentuan eta jarduera-komunitate bat dagoen unean taldean ere eratzen direla balio eta sinesmen batzuk, egiteko modu batzuk eta zu modu paraleloan zoazela zure praktikak taldeko praktikekin garatzen eta identitate bat sortzen. Hor gune interesgarri bat dago ikusteko hizkuntza identitatea eta gazte identitatea ez direla banatuta garatzen.

Zein garrantzi du gazte identitatea eta euskara batera joateak?

Ikuspuntu feministatik praktika eta identitatea ez doaz bereizita. Gazte bezala egiten dituzun praktikak euskaraz egin ahal izateak, zure euskarazko identitatea garatzeko balio ditu. Bestela, eduki dezakezu atxikimendu emozionala edo ideologikoa, baina egunerokoan ez duzu erabiliko. Arlo horretan, bertso eskolak euskara blindatzeko

aukera ematen du. Izan ere, ez da gazte hauek ez dutela euskal identitatearik: nazio identitatea daukate, ideologikoki oso kokatuta daude Euskal Herriko egoera soziolinguistikoa, Euskara Eguna ospatzen dute urtero eta 3 urte dituztenetik ari dira lauburuak margotzen. Kontua da gazte bezala mundura azaldu nahi dutenean, beste gazteen egiteko moduekin eta balioekin identifikatzeko beharra dutela, eta inguru batekin zeinak utziko dien modu interesgarrian beraien gazte identitatea garatzen, euskaraz. Bertso eskolak horretarako aitzakia ematen du.

Genero ikuspegitik ezberdintasunik atzeman duzu?

Kolegiora joaten direnean sentitzen dute presioa frantsesera pasatzeko. Batzuek eusten diote euskarari, baina beste batzuek ez. Garai horren inguruan hitz egiteko modua adibidez, emakumeen kasuan askoz autozigortzaileagoa da, esaten dute bazekitela gaizki ari zirela eta gaizki sentitzen zirela. Ezin dut irakurketa kuantitatiboa egin, ikerketa kualitatiboa egin dudalako. Dena den, ikusten da mutilek gehiago eusten diotela, hainbat arrazoi tarteko, baina aldi berean beraien buruei zilegitasun nahikoa aitortzen dietela frantsesera pasatzeko, arazo gehiegirik gabe, ez da hainbeste kulpia ikusten.

Ipar Euskal Herriko bertso eskolak indartsu daudela azaldu duzu tesian, baina aldi berean, ardurak hartzeko zailtasun gehiago dituztela diozu.

Paradoxikoa da, eta oso interesgarria iruditzen zait. Kuriositate handia daukat nola garatuko den ikusteko. Kontua da bertso eskolak ondo funtzionatzen duela hizkuntzaren

transmisioaren kateak jarrai dezan, hain zuzen ere, ez delako kate bat. Bertso eskolak gazteei ematen die eskolak eta gurasoek esan dietenetik kanpo euskaraz aritzeko modu bat. Hau da, helduen kulturarekiko haustura bera da hizkuntzaren jarraikortasuna bermatzen duena. Baina, aldi berean, belaunaldiz belaunaldi ari da transmititzen bertso-larritza, eta iparraldean ez galtzeko ahalegin handia egin da. Belaunaldi bakoitzak dagokion ardurak hartu ditu, eta bertso eskolako gazteak irakasle eta iparraldeko bertso munduko kide bihurtu dira. Gaur egungo gazteek eten egiten dute diskurtso horrekin, izan ere, ber-

tso eskola transmisio kate horren parte bihurtuko balitz ez luke funtzionatuko, haustura izateari utziko liokeelako. Gazteek ez badute jarraitzen eten egingo denaren ustea badago, baina agian ez. Agian zahartzean hartuko dituzte ardurak edo moduak aldatuko dira; plaza alternatiboak sortuko dira edo beste zirkulu batzuetan funtzionatuko dute, auskalo.

Tesian zu ere bazaude.

Horrek gauza batzuk zaildu dizkit eta beste batzuk erraztu. Hori dela eta, nire adinkide diren beste bi lagun elkarrizketatu nituen nirekin garai haietan bertso eskolan ibili zirenak, horrela kontrastatu ahal izan nuen zein diferentzia estruktural dauden gure belaunaldiaren eta oraingoen artean.

Zein ezberdintasun ikusi dituzu?

Guk ez genuen erreferenterik bertso eskolan hasi ginenean. Iparraldean bertso munduak ez zuen gazte identitatearekin loturarik. Ni hasi nintzenean 10 urte nituen, 1995. urtea zen eta orduantxe hasita zegoen rock belaunaldia. Nerabezaroa iritsi nintzenerako hegoaldean bazeuden erreferenteak, baina iparraldean gure erreferenteak Xanpun, Ezponda, Laka, Miura eta Alkat izan ziren. Guri lotsa ematen zigun bertso eskolara joaten ginela esateak. Gure artean ez zegoen talde sentsaziorik, ez zen urteroko gauza bat, ez ginen beti berdinak elkartzen. Gu bertso frikiak ginelako joaten ginen bertso eskolara, gaur egun, zorionez, ez duzu bertso frikia izan behar bertso eskoletan egoteko, eta hori ona da. ●

“
**Bertso eskolak
euskara
blindatzeko aukera
ematen du”**



BABESLETTZA:



**hasi etxetik eta kalera,
hasi kaletik eta etxera...**

arnasa GARA, EUSKARAZ GARA!



*“Ezin uka euskarak
leku guti zuela
Enbatan,
beste euskal
alderdietan bezala”*

Jean-Louis Davant



Enbata

ALDIZKARIAK 60 URTE

1960an Aljeriako gerlatik sartzekoan kausitu zituen Jean-Louis Davantek *Embata* aldizkari politikoaren lehen aleak Ürrüstoi-Larrabileko (Zuberoa) sortetxean. Bere biziaren bidea azkarki markatuko zuen irakurketa. Hizki bakarra aldatu eta *Embata Enbata* izatera pasa zen urte berean, ildo editorialaren mami politiko eta abertzalea finkatuz eta aldarrikatuz. Ipar Euskal Herrian euskal abertzaletasuna ereinen eta sustatuko zuen izen bereko mugimendua sortu zen 1963an. Sei hamarkada hauetan *Enbata*-n idazten ari da mugimenduaren sortzaileetarikoa izan zen zuberotar euskaltzalea.

Enbata aldizkariak 60 urte bete ditu aurten. Nola oroitzen duzu komunikabide honen sortzea?

Enbata politikoa aitzin hor zegoen Embata euskal ikasleen elkarte, 1953an Bordelen sortua, lehen-dakari zuela Michel Burucoa Arboti eta Baionako medikugaia eta kide zinez ezaguna Ximun Haran baionar botikarigaia, esku pilotari handia. Urtero udako oporretan, kideek euskal udalerrri bateko bizi ekonomikoa ikertzen zuten aste-betez. Izen bereko aldizkari bat ateratzen zuten tarteka. 1960ko uztailaren 23an ikasle ohi zenbait bildu ziren Ezpeletan eta erabaki zuten euskal politikara pasatzea aldizkariaren bitartez. Zenbaki berezi bat idatzi eta hedatu zuten Arbotin, Eskualzaleen Biltzarra

kultura mugimenduaren bilkura publikoan. Abertzale gazte horiek ere mugimenduan ziren eta etsidurak hartuak zituen bide apolitikoaren antzua ikusiz –botere publikoei bidali euskararen aldeko eskari guztiak seko zakarrontzira joaten ziren–. Horregatik erabaki zuten euskal politika bati ate bat irekitzea. Hastapen horretan ez nuen parte hartu, Aljerian soldadu bainengoen 1958ko irailetik. 1960ko abenduan itzuli nintzenean aurkitu nituen *Embata* politikoaren lehenbiziko zenbakiak Larrabileko sortetxean, pozik naski. Eguberri irian, ikasleen buruek *Embata*-ren politizazioari muzin eginik, abertzaleek izena aldatu zioten ortografia berriaren arabera, “m” letraren orde “n” jarritz. Laster taldean sartu nintzen.

Zer girotan sortu zen?

Egoera nahasia zegoen, batetik bortitza, bestetik ilusioz aberatsa. Hegoaldean Franco gora zegoen, baina nork asma zezakeen beste hamabost urtez iraunen zuenik? ETA agertu berria zen. Europaren xedea aipu zen, harekin Espainiaren demokratizatzea eta euskal autonomiaren itzulera. Iparraldean, Aljeriako gatazka iduriz baketzera zihoan, baina baldintza gogorretan, laster autodeterminazioaren aurkakoak *putsch* baten egitera saiaturiko ziren eta. Hemen ere frantses nazionalismoa sekula bezain indartsu zen de Gaulleri esker. Nekazari mundua laborantza industrialean sartzen hasia zen eta bide horretan laguntzen zuen gaullismoak. Jendartea kontsumoaren dastatzen ari zen eta garatu ahal izateko bakea nahi zuen. Ekonomiaren aurrerakada ikusiz, antza denez *Enbata* ez zen unerik onean sortu, iduri zukeen iniziatiba zinez idealista zela. Halere sakonean oinarri sozial bat bazuen: etxaldeetan premu ez zirenek hiri arrotzetako bidea hartzen zuten, lana bilatu beharrean. Enbata-n bigarren mailako aitzindariak izango ginenek ordea desterruari uko eginez, aberrian egotea erabaki genuen.

Enbata mugimendua aitzin sortu zenuten komunikabidea.

Ideiak zabaldu behar genituen eta horretarako behar zen tresna bagenuen: *Embata*. Ez zait iduri hastapenetan mugimendu baten sortzerik aipatu genuenik. Lehenbiziko Aberri Eguna –pribatua– ospatu genuen Itsasun 1962ko Bazko astelehenez. Hitzaldi bana egin genuen Haranek, Jakes Abeberryk eta nik. Eztabaidan agertu zen mugimendu baten xedea eta 1963ko Aberri Egun fundatzailea prestatzen pasa genuen urtea.

Nola ikusiak zineten ?

Giroa ez genuen batere aldekoa. Iritzi publikoa frantsesazalea eta jaunen menekoa zen. Gizartean aurrera egiteko euskara bazter utzi behar zen, hoberenean etxe zokoan, ez zelarik erabat arbuizatzen. Ekonomian ere konformismoa zen nagusi. Gure xedeek arrakasta guti zuten, sinesgogor zen jendea. Etsaiak ere bagenituen, zenbait bortitzak –ez hainbat adineko pertsonak, hauek euskaldungoari natural ki atxikiak baitzeuden, baina bai gu baino belaunaldi erdi bat gehiago zeukatenak, “gerra de Gaullerekin egin” zutenak–. Batzuetan zuzenki oldartu zitzaizkigun, biltzar publikoak oztopatuz edo autoetako gurpilak zilatuz. Herio mehatxurik ere

zebilien. Ni neuk lau gutun ukan nituen, gaztelaniaz eta beste batzuk ahoz Iparraldetik. “Enbata zikinak” ginen, de Gaullek “la Madone” eta “Notre-Dame la France” deitzen zuen Ama Birjina bezalakoaren aurkako blasfematzaileak.

Bozgoragailu kulturala berriz Euskal Idazkaritza zenuten, Enbata-ren egoitzan zuena bulegoa.

Iparraldeko abertzale batzuek sortu genuen Hegoaldetik aterpetzera etorri berriak ziren lagun batzuekin –Benito del Valle, Irigarai, Madariaga, Txillardegi, Xabier Elozegi...–. Euskal kulturaren aldeko iniziatiba guztien zerbitzuko jarri genuen. Eraman lanaz ez naiz xeheki oroitzen, baina gogoan atxiki ditut urrats nabariak batzuk. Frankistek 1937an fusilatu zuten bizkaitar poeta gaztearen oroimenean, *Lauaxeta saria* sortu genuen kazetarien alde. *Enbata*-ko aretoan bi sorrera handi aterpetu zituen elkarteak: euskara batuarena eta Iparraldeko lehen ikastolarena.

Euskara batuarena nola iragan zen ?

Nahiz batzuek ez duten entzun gura, euskara baturako lehen urratsak Baionan egin ziren, *Enbata*-k Euskal Idazkaritzari prestatzen zion areto horretan. 1963-64ko ikasturtean, zortzi lagun astero bildu ginen Txillardegiaren inguruan. Berak iniziatiba hartu eta lanik gehiena egin zuen. Taldearen osatzeko bi oinarri hautatu zituen: euskal alderdiak eta elizgizon batzuk –Vaticano II kontzilioak ireki bidetik liturgiaren euskalduntzen ari zirenak–. Alderdien izenean, EAJko bi (Monzon eta Solaun), ETAko bi (Eneko Irigarai eta Txillardegi) eta Enbata-ko bat (ni neu) ginen. Elizgizonak hiru lapurtar nahiko gazte ziren (Pierre Andiazabal, Jean Hiriart-Urruty eta Roger Idiart). Tarteka, beste bakar batzuek ere parte hartu zuten, bereziki Gernikako Balduino Bilbao aterpetu gazteak. 1964ko abuztuan idazle eta irakasleen bilkura ireki bat egin genuen proposamenen ikertzeko, Pierre Lafitte euskaltzaina gidari harturik. Lafittek Euskaltzaindira eramanez zuten dosierra eta 1968ko udan, Arantzazun, Koldo Mitxelena esker, Euskaltzaindiak beretu zuen.

Iparraldeko lehen ikastolaren sehaska ere dugu.

Euskal Idazkaritzaren babesean ireki zen,

lehendakari zuela Argitxu Noblia Enbata-ko kidea eta idazkari Xan Hiriart euskaltzale suharra. Irakaslea, Iparraldeko lehen *andereñoa*, Libe Goñi gipuzkoarra. Gero Arangoitzera joan zen ikastola hori.

Aberria eta euskara, eskuz-esku.

Aberria euskalduna zela argi eta garbi genuen, gure praktika ez beti egonarren arabera. Badakigu *Enbata* Euskaltzaleen Biltzarraren hegaltetik jaio zela, txita oilo kolokaren arroltzetik bezala, ama horren bide apolitikoak ez zuelakoan euskararen geroa segurtatzen. Orain euskara-aberria binomio hori hain klar ote da –bereziki eskuin ala ezkerreko politikari abertzale batzuen artean–? Euskara barik ez da euskaldunik, ezta Euskal Herririk. Euskara gabe zertarako autonomia? Zertarako independentzia? Espainia txiki baten eraikitze handiaren alboan? Besteak baino aberatsago izateko? Hori ote dugu bizitzako ideala? Ideal humanista? Gainera, kristaua edota sozialista? Hainbeste bizitza horretarako emanek? Ez dut uste merezi lukeen.

Zein toki zuen euskarak Enbata mugimenduan eta aldizkarian?

Aldizkarian euskarak leku guti zuen; *Ekin* barneko buletina osoki frantsesez zen, halaber formakuntzarako lehen hiru kaierak (laugarrena bi hizkuntzetan zen). Bilkurak euskaraz egiten genituen Zuberoako eta Hazparne aldeko taldeetan, Donibane Lohizune aldekoak ez dakit eta Baiona aldean pentsu dut frantsesez. Bulegoko eta administrazio kontseiluko bilkurak baita biltzar nagusiak ere frantsesez: betikoa, batzuek euskara menderatzen ez duten ber, denak erdaraz. Ezin uka euskarak leku guti zuela, euskal alderdi guzietan bezala. ETAre inguruan indar gehiago egin zuten, bereziki militanteen alfabetatzeko.

Auziak, zentsurak... ezaguna zinezten Parisko bulegoetan.

Hasteen Frantziako Estatuak hein bat lasai utzi gintuen. Giroa gogortzen hasi zen Etxaluz aferarekin (1965ean Kristiane Etxaluz atxilotu zuen Guardia Zibilak Dantxariako mugan). Gero zigorrak handituz etorri ziren manifestaldi batzuen kariatara. Neronek auzi luzeak jasan nituen 1972ko otsailaren 22tik goiti, Baio-

nan iheslarien aldeko manifestaldi bat animaturik. Aberri Eguna ere gure zirikatzeko aukera ona zitzaion Paueko prefetari. Lehenik toki pribatuan ospatzen genuen Itsasun, Bazko astelehenez eta folklore susmagarri baina jasagarri mailan uzten ziguten. Baina Hegoaldean bezala Bazko egunez karrikara eraman genuenean debekatu ziguten eta pataskak gertatu ziren, buruzagiak auzitara jaulki gintuzten. Isunak gero eta handiagoak ziren, gure tinkatzeko eta mugimenduen xurgatzeko. Baina ez ginen gelditzen. 1973an ezin sinetsizko auzi andana jasan genuen, aldizkarian agerturiko artikulua batzuen saritzat.

1974an Frantziak mugimendua debekatzen duenean, zer gertatzen da aldizkariarekin?

1974ko urtarrilean, Baionako katedralean, abertzale berriek iheslarien aldeko laugarren gose greba egin zuten, Enbata espresuki kanpoan utziz. Estatuaren erantzuna gisa berekoa izan zen: Enbata fuera! Alta gure mugimendua zinez ahuldua zegoen. Baina estatuarentzat dena Enbata zen. Iheslarietara ekartzen genien laguntza zuen gehienik ikusmiran. Aldizkaria gure indar nagusia zenez, guk uste genuen hori zuela ikusmiran eta agertzea eten genuen. Abokatuen bitartez jakin genuen legeak osoki mugimendutik at uzten zuela aldizkaria. Beraz urteburuan berriz agertzen hasi ginen.

60 urte eta gero zer bilan egiten duzu?

Batzuetan ari naiz mugimenduari aldizkariaren izena ematea ez ote zen bien kalteetan izan, baita mugimendu zabalaren ordeztu alderdi zentralizatu baten gisan zorrozki antolatzea ez ote zen akats izan ere. Denborak erantzun digu: Enbata-k alderdi bezala huts egin zuela dirudi, baina mugimendu zabal bezala bere helburua bete du nire ustez, Iparraldean abertzaletasun antolatuari bidea irekiz. Euskal arazoa ezin baztertutako gisa landatu zuen Iparraldean, Frantziako Estatuari buruz, iritzi publikoan eta munduaren aurrean. Iniziatiba franko sortu du kulturen, beste zenbait babestu. Ekonomia ere eskua sartu du, kooperatibismoan, autogestioaren ideala zabalduz, tokiko aurrezkiak sustatuz eta hortik enplegu berrien sortzeko politika bati atea irekiz. Baina Hegoaldean dena ez baitzen ETA, halaber Iparraldean dena ez da Enbata, etsaiek hala uste izan arren. Enbata-ren ingurutik mugimendu andana sortu zen, batzuk hein batean



AHAL DUENO IDATZIKO DU. Euskal Herriko bizian aktiboki parte hartzeko baita 85 urterekin "ahal bezain ongi zahartzeko" ere laguntza du idazkera.

adiskideak, besteak ez. Nekez erran daiteke zein den Enbata-ren parte eta zein besteena. Abertzale mugimendua zabaldu da eta dibertsifikatu. Denen arteko elkarlanaren fruituak dira aurrera egin diren urrats ugariak.

Euskaraz idazten duzu *Enbata*-n eta euskalgintzan zabilta. Nola hartu zenuen Amets Arzallusek 2013an egindako kritika, euskarari aldizkariak zuzendu leku eskasaz?

Ametsek ez du ametsik egin, ez du gezurrik erran eta egia irentsi behar dugu garrantza izanik ere. Azalpen bat hartzen du halere *Enbata*-ren hizkuntzarekiko joerak. Aldizkaria garatu zuten BAM Baiona-Angelu-Miarritzeko "hiritar deuseuskaldundu batzuek", *des Basques débaisqués* Pierre Charrittonen hitzetan. 30 bat urtetako plaza gizonak ziren, nortasun handikoak, orduko gizartearen ongi errotoak eta lekutan zeuden gidearren hartzeko. Gu aldiz euskaldun petoak, gazteagoak ginen, ez hain latinizatuak, uzkurragoak, gizartearen ez oraino kokatuak, Euskal Herri barnean bizi... beraz bidea maiz etsai genuen. Haiek naturalki gaina zuten eta beti ukan dute. Denbora berean argudio hau ere nagusi egon da: aberriaren deia euskaldun ez direnei ere helarazi behar zaiela. Egia da gainera *Enbata* euskaldunon ahotsa dugula Eus-

kal Herriatik kanpora. Azken denboretan euskarak toki gehiago hartu du *Enbata*-n, nahiz ez aski. Orokorki euskarak ez du behar lukeen tokirik euskal politikan, ez Iparraldean, ez Hegoaldean. Etsenplu txarra politikarien aldetik dugu, ahaletin eskasa, koherentzia guti. Haatik besteen hutsek ezin dituzte gureak estali.

Zer ekartzen dizu *Enbata*-n idazteak eta zer ekartzen diozu herriari, munduari eta irakurlegoari?

Besteei zer ekartzen diedan ez dakit. Niri haatik asko dakarkit. Irudi baten bitartez azalduko dizut, irudi hau egiazkoa da, nire begietan errotoia baitago. Larrabileko gain apal honetarik, Biarnoko mugan, Euskal Herriko lehen mendixkaren hegala batetik, begien bistan ditut Lapurdiko, bi Nafarroetako eta Zuberoako bortu ederrak, eta haien atzetik, hegoak ufa-tzen duen gauez, zeru mugan aialatzen zaizkit hainbat uharte bezala, Iruñeko, Hendaia-Donostiako eta BAMEko hiru leinuruak. Idaztean eremu horretako bizitzan parte hartu nahi dut ene heinean aktiboki. Denbora berean, ahal bezain ongi zahartzean laguntza fierra ematen dit. Ahal dudano aurrera joango naiz horretan. Noizbait, agian laster, horietan agertzeari uko egin beharko diot. Baina berdin idazten jarraituko dudala iduri zait, erran bezala indarrik dukedano. ●

LANEKO OSASUNA



DANI BLANCO

Etxe bakoitzak bere deskonfinamendua

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Galderak aldatu egin dira azken bi asteotan. Beste fase batean gaude – irakurlea gehiago nahasteko intenziorik gabe, ez naiz ari Bidasoaren hegoaldekooi behintzat hain ezagun egiten zaizkigun lau fase zirraragarri horiez–. Hasi gara lanera bueltatzen, herrietako komertzio eta taberna batzuk atek ireki dituzte... Baina nola antolatzen ari da etxe bakoitza baldintza eta neurri jositako deskonfinamendu hau? ARGIA n badirudi jendeak gustua hartu diola etxeko egongelan pijama jantzita lan egiteari.

Zuzendaritza taldeak gutun bat igorri die Lasarterako pabiloian lan egiten duen kide bakoitzari, lehentasuna taldekideen eta beren inguruko osasuna bermatzea izanik, galdetuz nola jarraitu nahi duten lanean datozen asteetan; etxetik ala Lasartera joanez. Bakoitzaren egoera oso desberdina izan daitekeela jakitun, aukeran jarri dute; batzuk gustura ariko baitira etxetik, eroso, baina beste batzuk beharko dute, akaso, etxetik atera eta lantokira joatea. Eta aukera hori izatea, momentu hauetan, ez da gutxi.

ARGIAko langileek ekainaren 1 arte behintzat etxetik lan egitea erabaki dute. Lantokia babes neurrietara egokitzeak ez du inbertsio handirik eskatuko

LANTOKIRA ITZULERA ZEHATZU GABE

Etxetik jarraitzea erabaki dute. Bai ekainaren 1era arte, behintzat. Hortik aurrera, ikusi egin behar, ez dago ezer zehaztuta. Etxetik aritzea lehenetsi badute ere, nahi duenak joan ahal izango du Oriako pabiloira. Bertaratzeko asmoa duenak, hori bai, abisua pasa beharko dio zuzendaritza taldeari. Helburua da momenturo jakitea zenbat jende dagoen bertan, pilaketarik ez sortzeko; eta nor norekin dagoen, kideen artean kutsaturik detektatuko balitz, lehenbailehen jakin ahal izateko norekin izan duen kontaktua.

Asmoa ez da inbertsio ekonomiko handiegirik egitea, babes neurriak zaintzeko materialetan. Zorionez pabiloia espazio handia du eta jokoa ematen du langile bakoitzak beharrezko dituen segurtasun distantziak sortzeko. Lantokian sartzen direnerako prest dituzte eskularruak, maskarak eta desinfektatzeko gela, eta bakoitzak ere arduraz jokatu beharko du lantokian; garbitzaileak bere lana egingo du, noski, baina norberak zaindu beharko du bere txokoa, mahaia, aulkia eta erabilitako tresnak. ●

ONGI ETORRI KOMUNITATERA!

Arrazoi hauek eman dituzte egun hauetan Argia Jende egin diren kide berrietako batzuek, komunikabide independente hau ekonomikoki babestu eta proiektua bultzatzeko. Ongi etorri denei, komunitatera!



“Arazo ekonomikoak dauzkaten aldizkaria doan jasotzen jarraitzeko aukera eskaini zenuten, eta hunkitu nauzue”.

Plentziako Jesus

“Argiak eskaintzen didan informazioari balio bat emateko era iruditzen zaidalako”.

Iruñeko Marina

“Euskaratik posible delako komunitatea beste balio, beste ikuspegi eta beste jarrera batzuekin eraikitzea. Are gehiago: hori delako herri hau etorkizunean euskaraz bizi dadin dagoen modu bakarra”.

Donostiako Beñat

“Egun dagoen euskarazko eta gertuko proiekturik interesgarrienetako bat dela iruditzen zaidalako. Kalitateagatik”.

Oiartzungo Araitx

“Horrelako proiektuak ezinbestekoak direla uste dudalako. Euskalduna, anitza, kritikoa... Egiten duzuen lana itzela da”.

Arrigorriagako Anartz



Bizitza betea eta ordain hutsa



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Krimea, 1855 inguruan. Anna Moiseevna Rozenstejn –gerora Anna Kulishova izenez ezaguna– jaio zen, merkataritza judutar familia aberats batean. 16 edo 17 urte zituela Zuricheko unibertsitatean eman zuen izena, filosofia ikasteko, baina egoera politikoak Errusiara itzultzera behartu zuen. Piotr Makarebitx anarkistarekin ezkondu zen; landa gunera joan ziren bizitzera, pobreekin batera, pobreak bezala, eta Bakuninen ideiak zabaltzera. Berehala atxilotu eta erbesteratu zituzten. Ez zen sekula jaioterrira itzuliko. Suitzara joan zen berriro eta izena aldatu zuen; esklabo ohien abizen bat aukeratu zuen: Kulishova.

22 urte zituela Andrea Costa anarkista italiarra ezagutu zuen. Lehenik, Florentzian atxilotu zituzten –Annak tuberkulosia eta artritis harrapatu zituen espetxean–. Gero, Suitzako beste erbestaldian baten ondoren, Italiara itzuli eta Milanen atxilotu zituzten. Suitzan izan zuen bere alaba bakarra, Costarengantik banandu zen eta, alaba hartuta Italiara itzuli zen.

1882an Annak 27 urte zituen, eta atzerrian alabarekin bakarrik egon arren, geratzen zitzaion diru apurra lagun, medikuntza ikasten hasi zen Napoliko unibertsitatean. Turinen amaitu zituen ikasketak, ginekologian espezializatuz eta, hantxe, tesia prestatzen ari

zela sukar puerperalaren jatorri bakterianoa frogatu zuen.

Esaterako, 1840ko hamarkadan, Viena Ospitale Orokorrean, erditzean hamar emakumeetatik bat hiltzen zen sukar puerperalak jota. Ez zekiten zerk eragiten zuen eta, beraz, ezin zuten tratatu. Anna Kulishovaren aurkikuntzak bizia salbatu zien milioika emakumeri.

Aurkikuntza horri esker, laborategian karrera oparoa zuen aurretik, baina Annak Milanera joatea erabaki zuen eta, han, auzo txiroenetako emakume behartsuenei arreta ginekologikoa eman zien doan. Filippo Turati sozialista ezagutu zuen eta, elkarrekin, Langileen Alderdia sortu zuten 1892an, gerora Italiako Alderdi Sozialista izango zena.

Carlo Silvestri kazetariak haxe idatzi zuen Annari buruz 1947an: “Italiar sozialismoaren garunik bikainena emakume ezti eta basati hura zen. Haren aurrean denak adeitsu eta liluratuta egoten ziren, Mussolini bera barne”.

1891n, Bigarren Internazional Sozialistaren Bruselako kongresuan, Kulishovak beste hainbat emakumerekin egin zuen topo; emakumeak askatu gabe gizakiak ez zirela aske izango aldarrikatu zuten, eta han bildutako ordezkariak eskubide berdintasunaren aldeko konpromisoa onartzea lortu zuten. Baina, bestela, Anna bakarrik zegoen: emakume bakarra izan zen unibertsitatean, gi-



MARIO NUNES VAIS

nekologo jardunean eta militantzia politikoan. Eta bakarrik hil zen.

Berak sortutako alderdiko kide ohi batek, Benito Mussolinik, are gehiago ilundu zizkion azken urteak. Mussolinik sozialistak jazarri zituen, Anna bera barne, eta erabat etsita eman zituen azken bizpahiru urteak: espetxealdi, erbestaldi, jazarpen, estutasun eta ahalagin guztiak alferrikakoak izan zirela uste zuen. 1925eko abenduaren 27an hil zen Milanen, bere aurkikuntzak milioika emakume salbatuko zituela jabetu gabe, Bruselako aldarrikapenak apurka bidea egingo zutela ikusi gabe, ereindako guztia fruituak jaso gabe. ●

Epaileak, serio eta beltz

XVII. mendera arte, Ingalaterrako epaileak hainbat koloretako jantziak erabili ohi zituzten, modaren edo apetaren arabera: gorriak, moreak, berdeak, beltzak... 1635ean togen koloreak arautu zituzten: udan epaileak toga morea jantziko zuten eta neguan, beltza; go-rria zeremonia berezi eta zigor epaitegietara mugatu zuten. 1694an, Maria II.a erregina baztangak jota hil zenean, epaileak neguko toga janztera behartu

zituzten doluak iraun bitartean. Baina dolu ofiziala hainbat urtez luzatu zenez, amaitu zenean, inork gutxiak aprobetxatu zuela berriro kolore biziagoak erabiltzeko aukera. Ordurako epaile gehienek armairuetan ez zen toga gorri edo morerik, eta beltza nagusitu zen. Epaileen zereginaren seriotasunarekin bat egiten duelako? Errespetua eta autoritatea adierazteko? Praktikotasun kontua besterik ez zen izan. ●



GEORGE ROMNEY

JAN LORETIK



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Gure latitudean landare gehienek izerdia udaberrian mugitzen da, eta loraldi nagusiak sasoi horretan gozatuko ditugu. Edertasunaren ikur ditu jendeak loreak: ikusteko, usaintzeko... Eta dastatzeko? Jan al duzu sekula lorerik? Seguru baietz.

Nork ez du jan orbururik (*Cynara cardunculus* var. *scolymus*)? Gero eta maizago agertzen da kuiatxoaren lorea ere (*Cucurbita pepo* subsp. *pepo*) gure plateretan. Lehengo astean txikoria-belarraren (*Taraxacum officinale*) lore gozoak entsaladan nahastea aholkatu nizuen; saiatu al zarete? Bestelakoren bat erabiltzen al duzu? Ba osasuntsuak omen dira, eta boladan dago loreak eskaintzea: entsaladaren tontorrean bezala saltsaren osagarri edo postrearen aldamenen. Eta badute loreek, liliek, morbo punttu bat, azken finean landareen sexu organoak dira. Eta sexuak gogora ekartzen diguna daramate liliek: kolore biziak, nektarrak, itxura kitzikatzaileak, urrinak eta usainak, belusezko eta zetazko ukiak...

Loraldi ugaritasunari heldu eta hasi lore janean. Bista poztuko dizute, eta aho sabaia dantzan jarri. Loreontzietan edo baratzean, nahi duzun tokian jarri landareak, edo urrutira gabe landare horiek badituzu bildu eta mahairako prestatu.

Oreganoaren (*Origanum vulgare*) hostoa jatera ohituta gaude, baina lorea ez hainbeste. Bixi punttu ederra dute. Kaputxinak ere (*Tropaeolum*

Boladan dago loreak
jatea eta badute morbo
punttu bat, azken
finean landareen sexu
organoak dira. Eta
sexuak gogora ekartzen
diguna daramate



majus) hosto gaziak ditu, eta errezeta mordoxka bat osatzen du. Loreak eta pipilak ere, bere min apurrarekin, jateko ederrak dira, eta kolore bereziz jantziko dituzte errezeta horiek. Izpilikua (*Lavandula* sp.) eta amañililiak ere (*Syringa vulgaris*) lore jangarriak dituzte, dasta sakonekoak, saiatu plateretan eta edalontzian... Udaberri loreak (*Primula* sp.) eta errukularenak (*Diplotaxis tenuifolia*) horituko dizute otordua, bigarrenak piper ttantta batekin. Erregaliz ttantta eransten dute mihiluak (*Foeniculum vulgare*) eta isipu-belarrak (*Hyssopus officinalis*). Dasta fina eta gupera dute sagarrondoaren (*Malus domestica*) eta bioletaren (*Viola* sp.) loreek, babarrun loregorriak (*Phaseolus coccineus*) eta ekiloreak (*Helianthus annuus*); azken horren lore bueltako petaloek mikatz amiñi bat ere badute. Garratza da maiuru-krabelinaren edo tejetearen lorea (*Tagetes patula*). Arrosaren petaloak (*Rosa* sp.), zauri-belarrarenak edo salbiarenak (*Salvia officinalis*), borrajarenak (*Borago officinalis*), txikoriarenak (*Cichorium intybus*) eta baltsamo-belarrarenak edo ilenarenak (*Calendula officinalis*) zakar antzekoak dira, eta ahoko dasta ez besteko zentzumenak asetzeko erabiltzen dira, baina hasi, hasi jaten eta tamaina hartuko diezu.

Lore asko dago, horiez gain, eta zeuk dastatzea bezalakorik ez dago. Eta zerk kitzikatzen zaituen esango diguzu! ●

Ostegunero
kontsultategia
18:00etan

Ostegunero 18:00etan landare kontsultategia egiten du Jakoba Errekondok zuzenean, www.argia.eus webgunean edo **Facebook**eko Bizi Baratzea orrian.

Bidali zure galderak aurrez:
landarekontsultategia@bizibaratzea.eus

ETXEKO AZOKA

DONOSTIAKO 140 ETXE TOKIKO ELIKAGAI EKOLOGIKOZ HORNITZEN

GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

Gipuzkoako hamasei ekoizle ekolo-
gikok bat egin zuten konfinamendu
hasieran Donostiako etxeetara to-
kiko produktu ekologikoak helarazteko.
Ekoizle horiek bazuten lehendik haien
arteko harremana, Euskadiko Nekazari-
tza Ekoizpen Ekologikoaren Kontseiluak
(ENEEK) eta Gipuzkoako Biolur elkarteak
ostalariei produktu ekologikoak eskain-
tzeko sortutako proiektu pilotua zela-eta.
“Internetez eskaerak egiteko plataforma
martxan zegoen jada, Sareko.net. Justu
denda digital hori prest zegoen unean
iritsi zen COVID-19aren krisi hau”, azaldu
digu Asier Bastarrika Goiabe Sukaldeko
ekoizleak eta proiektuko kideak.

EGOERA BERRIRA
EGOKITUTAKO TRESNA

Koronabirusak eragindako egoera be-
rrian, eta ekoizleentzat beraien salmen-
tak egitea nola zaildu zen ikusita, jada
sortua zegoen plataforma horri beste
erabilera bat ematea pentsatu zuten:
“Krisi honen lehen bi asteetan antolatut
ginen, plataforma erabilera berrirako
moldatu eta elkarlanean hasi ginen Do-
nostian banaketak egiten”. Proiektura
batutako ekoizleen bidez, denetarik
produktuak eskaintzen dizkiete familiei:
barazkiak, sagardoa, esnekiak, gaztak,
arrautzak, ogia, marmelada eta beste-
lako ontziratuak, pasta freskoa, ezta...
“Jendeari erosketa ahalik eta zabalena
egiteko aukera eman nahi diogu”.

Astean bitan egiten dute produktuen



IRUTXULO KO HITZA

Sareko.net webgunean era guztietako bertako produktu ekologikoak eros daitezke eta astean bitan
egiten dute Donostian banaketa.

etxez etxeko banaketa. “Bi bide ditugu:
Oria ingurutik biltzen ditugu produk-
tuak alde batetik, eta Urolatik bestetik.
Denak Hernanin bildu eta etxez-etxeko
banaketa egiten dugu jarraian”. Familiek
igande arte dute astearteko banaketara-
ko eskaerak egiteko aukera, eta astearte
iluntze arte ostiraleko banaketakoa egi-
teko. Erantzun oso ona jaso dute, pozik
daude ekoizleak: 140 etxetan egin dituz-
te 220 banaketatik gora.

KONTSUMOAN ALDAKETA?

Tokiko produktu ekologikoak soilik es-
kaintzen dituzte Etxeko Azoka proiektu-
an, eta erantzun ona izan dutela ikusita,

jendea krisi garaiotan kontsumo ohiturak
aldatzen ari ote den galdetu diogu Bas-
tarrikari. “Nik esango nuke zertxobait
baietz, iruditzen zait kontsumo taldeak
ere berpiztu direla egoera honetan. Ez da-
kit momentuko beldurra edo zer izan den,
baina egia da jendarteak erantzuna eman
dion kasik gauza bakarrenetakoa izan
dela elikaduraren eta baserritarren gaia:
lortu da azokak irekitzea adibidez”, dio.

Plataforma bidezko salmentak man-
tentzea lortzen badute aurrera begira
ere funtzionatzen jarraitzeko asmoa dute
proiektuko kideek. “Erraminta oso inte-
resgarria da, denden eta kontsumo tal-
deen osagarria izan daitekeena”. ●

Basherri
SAREA
OPUZKOR KONTSUMO TALDEA ETA KOPERTUBANK

Elika gaitezen irizpideak kontuan hartuta eta amalurra zainduz

655709043 | info@basherrisarea.eus

JUAN BAUTISTA BUSCA

Lehenengo euskal soinujolea

Juan Bautista Busca Pretto (1839-1902) 1859an etorri zen Gipuzkoako Goierri eskualdera Italiako Piemontetik, trenbidearen eraikuntzan lan egitera, eta akordeoi bat ekarri zuen soinean. Gaur arte bederen, bere izenez ezagutzen dugun Euskal Herriko lehenengo akordeoilaria da. Artikulu honetan hobeto ezagutuko dugu gizon handi hau, zeina ez zen soilik nabarmendu akordeoiaren aitzindari izateagatik, baizik eta baita bere bizitzako beste hainbat alderdi esanguratsurengatik ere.

 GORKA HERMOSA

1829an Cyrill Demianek Vienan asmatu zuenetik, akordeoia azkar asko hedatu zen munduan barrena. Esate baterako, badakigu Parisera eta Madrilera 1831n eta 1836an iritsi zela hurrenez hurren. Baina nola ailegatu zen Euskal Herrira? Hainbat teoria dago: Rafael Aguirreren arabera, akordeoia Euskal Herrian sartu zuten Beasain-Ormaiztegi trenbide zatia eraikitzeko 1859an kontratatutako Alpeetako langileek. Horietako bat izan zen Juan Bautista Busca. Javier Ramosen arabera berriz, 1835-1840 urteen artean Madrilera inportatu

ziren aurreneko akordeoiak Frantziatik ekarritakoak ziren. Paris eta Madril arteko errege-bidea Irun-Tolosa-Beasain-Zumarraga-Bergara-Arrasate-Gatzaga-Gasteizen barrena zihoan, eta horregatik, dio Ramosek, sinesgaitza da akordeoia ez ezagutu izana Euskal Herrian 1859 aurretik. Azkenik, Iñaki Linazasororen arabera, 1831n Pisonnat mekanikoaren Parisko tailerrean asmatu eta hilabete gutxira, Pasaian ainguratutako bergantin baten ontzi gainean entzun zen akordeoiaren soinua. Linazasorok ez du inolako frogarik ematen, eta beraz



Juan Bautista Buscaren akordeoia, Euskal Herrian entzun zen lehenbizikoetako.

baliteke kontakizuna poetikoa izatea historikoa baino gehiago, baina ez litzateke izango erabat sinestezina horrela gertatu izana. Beste alde batetik, nahiz eta akordeoia ez zuen Pisonnatek asmatu 1831n Parisen, egia da datu horiek zirela garaiko entziklopedia askotan azaltzen zirenak, eta beraz Linazasororen dokumentazio akatsa barkagarria da zinez.

Javier Ramosek argitaratuko dokumentu batek egiaztatzen duenez, 1860an, Busca Euskal Herrira iritsi eta urtebete besterik ez zela, bazen Bilbon akordeoiaren birtuoso bat: D. F. Erezuma, musikari eta geografoa. Hari buruz esaten zuten talentua zuela “nahi duena izateko”. “Konpositore moduan, argitara eman dituen bals eta dantza batzuegatik gomendatuta dago, eta pieza arinak izan arren, nahikoa dira arte jainkotiarraz daukan ezagutzaz eta bere gustuaz ideia egokia emateko. Instrumentista gisara, akordeoia jotzen entzun dioten guztiak harrituta bezain txundituta gertatu dira, ikusirik zer nolako zukua ateratzen dion instrumentu honi, zeina erabiltzen jakinez gero adierazkorrenetako bat den, eta nekez izango da Erezuma jaunak bezain ondo erabiltzen duenik. Baina gizon horrek, bide batez, bilbotarra denak –eta bilbotar izan behar oztopoak gainditzen ez jakiteko– musika adina ezagutzen ditu marrazkigintza, historia eta geografia; gainera, dohaina dauka bere lanei onerako buru-argitasuna duten gizonei baino ez dagokien originaltasun-zigilua emateko”.

Beraz, nahiz eta seguru asko akordeoia askoz lehenago ere ezaguna zen Euskal Herrian, esan dezakegu izenez ezagutzen dugun lehenengo akordeoi-laria Juan Bautista Busca Pretto dela, zeinak 1859tik jotzen baitzuen Goierriin Piemontetik ekarria zuen akordeoia. Haren musika-ibilbidetik dokumentalki ezagutzen duguna beraren biloba Jose Maria Busca Isusi (1916-1986) Zumarragako idazlearen aipamena da, askotan ekartzen baitzuen gogora, lagunartean, bere arbasoak akordeoiaz azaltzen zuen kalitate musikala. Bada-kigu, halaber, Cesnolako (Italia) haren jaiotetxean akordeoia jotzen zela. Rafael Aguirreraren arabera, akordeoi diatonikoa Euskal Herrira ekarri zuten trenbi-



JUAN BAUTISTA BUSCA (behean eskuinean) bere familiarekin.

Akordeoi diatonikoa
Euskal Herrira ekarri
zuen trenbide-langile
alpetarretako bat izan
zen, eta harekin alaitzen
zituen haien festak eta
gau luzeak langileentzako
prestaturiko
behin-behineko
“kanpamentuetan”

de-langile alpetarretako bat izan zen, eta harekin alaitzen zituen haien festak eta gau luzeak langileentzako prestaturiko behin-behineko “kanpamentuetan” –kantinak, ospitaleak eta okindegiak altxa zituzten, besteak beste, trenbidea eraiki bitartean–.

Akordeoi haien soinu kartsu eta melodikoak, Aguirreraren arabera, zirrar

handia eragin zuen inguruko biztanleengan, eta hauek azkar asko egin zuten bere, alde batera utziz ohiko txistua eta alboka. Aguirreraren teoriari jarraiki, esan ahal izango litzateke sarritan jo izango zuela Zegaman 1862tik 1864ra arte eduki zuen tabernan, baita Zumarragan 1864tik aurrera gobernatu zuenean ere. Juan Bautistaren jaiotetxean daukate oraindik hemen erakusten dugun akordeoia. Alvaro Buscari –Juan Bautistaren ondorengoari– Grazianak –Juan Bautistaren anaia Antonio Busca Prettoaren ondorengoak– eman dizkio argazkiak.

ITALIATIK ETORRITAKO ARTISTA BATEN IBILERAK

Busca Cesnolan jaio zen, seguruenik 1839ko maiatzaren 23an. Gurasoak Giuseppe Busca eta Margarita Pretto ziren. Sei anaia eta arreba bat izan zituen. Piemontera hitz egiten da Cesnolan, frantsesaren eta italieraren nahasketa bat, eta frantsesa ere bai; eta horregatik, Jean Baptiste jarri zioten bataioan. 1859an, Goierriira iristean, espainiaritu egin zuen izena. 20 urte zituela eman zuen izena trenbidea eraikitze hain-

Sustrai sakonak Zumarragan



Haren birbiloba Alvaro Busca kontatu digunez, Juan Bautistak sarritan jotzen zuen akordeoia etxeko bazkalondoetan, eta hala kutsatu zion musikarekiko grina bere seme Juan Inazio Busca Sagastizabali. Organo-jotzaile eta konpositore ezagun honek batez ere erlijiozko musikarengatik lortu zuen sona: Zumarragan jaio zen 1868an eta Zarautzen hil, 1950ean. Tolosan hasi zen pianoa eta harmonia ikasten eta ondoren Madrilera jo zuen gainontzeko musika-ikasgaiak egitera. Hiri hartako bi parrokiatan –Santa Barbara eta San Francisco el Grande– organo-jotzaile lanpostua bete zuen. Erlijio kutsuko lan ugari konposatu zituen, eta sona eman zion XXIII. Nazioarteko Biltzarren Eukaristia Himnoak, *Cantemos al amor de los amores, cantemos al Señor*, Espainiako Estatuan oso ezagun egin baitzen. Euskal orfeoiek sarritan izaten dituzte Sagastizabalen abesbatza-piezak bere errepertorioetan, horien artean *Bi euzko abesti* ederra.

Eskualdean itzal eta garrantzia oso nabarmena eduki zuen Juan Bautistaren beste seme bat Jose Busca Sagastizabal izan zen (1866-1937), Zuma-

rragako alkatea izandakoa 1920 eta 1923 artean, orduan kargua utzarazi baitzioten, Primo de Riveraren diktadurak gobernua hartu eta Espainiako udal guztiak desegin zituenean. Euskal folklorea eta musika oso gustukoak zituena, eta gaztetan herriko txarangako kide izandakoa zen, klarinetea joaz.

Sendian bizi zen kultur giroak isla izan zuen familiako beste gizon handi batengan ere: Jose Maria Busca Isusi zen, Juan Bautistaren biloba, 1916ko irailaren 6an Zumarragan jaiotako gastronomo eta idazlea, Madrilgo Unibertsitatean Natur Zientzietan lizentziatua. Izaera liberal, kultua, jakin-minduna eta heterodoxoa zen, euskal gastronomiaz garaian idatzitako liburu garrantzitsuenetako batzuen egile izan

zen, eta hedabideetan sarritan argitaratu izan ziren haren kolaborazioak. Aranzadi Natur Zientzia Elkarteko presidenteorde ere izan zen, Gastronomiazko Euskal Anaiartearen sortzaile eta presidente, baita barazki izoztuak ekoizteko lehenengo enpresaren sortzaile ere (Martzilla, Nafarroa). 1986ko uztailaren 16an

hil zen. Zumarragako Udalak Herriko Seme Kutun izendatu zuen 1984an. 1986tik aurrera, betiko Santa Lutzi jaietako Buzkantza Lehiaketa haren ohorez egiten da. 1996an haren izena jarri zioten herriko auzo bati. Zeukan liburutegi espezializatua Gipuzkoako Aldundiak erosi zuen 1993an.

Eskualde honetan Juan Bautistak ereindako akordeoi-haziak ekarriko zuen, handik urte gutxira, Zumarraga izatea Euskal Herriko aurreneko trikitixa taldearen sorlekua ere: Zumarragako Trikitixa, 1920an jaioa eta musika honen lehenengo grabaketaren autorea 1960an. Euskal musikaririk “benetakoenetako” bat izatera iritsi da egun trikitixa, Juan Bautista Buscak Italiatik ekarritako soinu handiaren ahaidea.

bat enpresa frantziar Aostako bailaran egiten ari ziren errekrutatzean eta Gipuzkoako Goierri eskualdera etorri zen, gutxienez beste 40 lagunekin. “Hermanos Pradines” enpresak eman zion ziurtagiriak dioenez, Juan Bautista Busca 1859ko martxoan kontratatu zuten, meatzari aritzeko, eta lan hori egin zuen 1861eko maiatzera arte, orduan postari izatera pasa baitzen.

1862an enpresak Zegamara eraman zituen bere langileak, horien artean Juan Bautista. Eta Zegaman zela, 1862ko apirilaren 28an, Josefa Antonia Sagastizabalekin ezkondu zen. Gi-

Badirudi Juan Bautista
Busca urrezko
belarritakoa jarrita
ibiltzen zela Zumarragan.
Ez da Euskal Herriko
lehen soinu-jolearen
bitxikeria bakarra

zon ekintzailea zenez, handik gutxira Txanberonea edo Osina Berri izeneko kantina ireki zuen emaztearekin batera, Oazurtza izeneko tunelaren hegoaldeko sarbidetik 500 bat metrora –Madril-Irun lineako tunelik luzeena berau, 3.200 metrokoa–. Dirudienez, inguru horretan dezenteko giroa zegoen, eta dakigunez Juan Bautistak berebiziko laguntza eman zuen horretan, bere kantina alaiarekin. Bikoteak bi alaba izan zituen Zegaman, biak ere umetan hilak.

Trenbide zati honen lanak 1864an bukatu ziren, eta ondoren Zumarra-

gara etorri ziren, Zubiaurre kaleko 21. zenbakira, eta ordura arteko ostalari-tza jardunari segida emanez taberna bat ireki zuten. 1864-1869 urte tartean aldizka aritu zen Zumarraga-Beasain zatia eraikitze lanetan eta tabernan. Bigarren Gerra Karlistaren urteak ziren eta Juan Bautistak, italiar herritartasuna zeukanez, bazeukan bere taberna eremu neutral bihurtzerik. Hori zela eta, liberalak gerturatzen zirenean bandera liberala jartzen zuten, eta bandera karlista berriz beste aldekoak inguruan zebiltzanean. Diotenez, Santa Kruz apaiza eta bere guardia beltza bezero ohikoenetakoak zituen, handik igarotzean beti egiten baitzuten tabernatik sartu-irten bat.

Senar-emazteek zazpi seme-alaba izan zituzten Zumarragan 1866 eta 1879 artean. Esaten dutenez, sonatuak izaten ziren familiaren bazkalondokoak, seme bakoitzak instrumentu bat jotzen zuen eta. Tabernari aritzeaz gain, *ebakitzaille* –harakin– lanbidean ere espezializatu zen. Badirudi 1868an osoki haragi-hornitzaile –erremata-tzaile– ari zela Zumarragan, udal-artxi-bategian ageri denez. Salerosgaien sartu-irtenagatik zergak kobratzen zituen Udalak, eta salaketa-idatzi ugari dago kontu horren inguruan, aipatu zergak ez ordaintzeko trikimailuak zirela eta sortuak; badirudi Juan Bautistak eskarmentua zuela jokaera horietan.

Jakina da Zumarraga eta Urretxu bereizten dituen Urola ibaia zeharkatzen zuen lau oholeko zubi txiki bat erai-

ki zuela –haren etxeak ibaira ematen baitzuen– beste aldean zeuzkan baratzeetara pasatzeko behar zuelako aitzakiarekin. Udalak kendu eginarazi zion, haragi-kontrabandoa egiteko erabiltzen zuen susmoz, baina ondoren kableak bota zituen, helburu berberarekin. Liskar ugari gertatu zen. Badirudi arazoak goia jo zuela 1880ko abuztuaren 25eko arratsaldeko sei eta erdietan, orduan agertu baitziren etxean, udal-epailearen aginduz, herriko errematatzailea eta zutargiak zermatzaten lau guardia, miaketa egitera; azkenean, ozpina egiteko zahagi bat ardo baino ez zuten aurkitu, eta une jakin batean hark “lapurrak” zirela esan zienez, salaketa jarri zioten eta auzibi-

dea abiatu, baina lagunen eraginari esker zigorrik gabe geratzea lortu zuen.

Badirudi urrezko belarritakoa jarrita ibiltzen zela Zumarragan eta haren beste bitxikerietako bat zura lantzeko zeukan afizioa da, esate baterako makilak edo zutabeak. 1900eko urtean, Itarte eta Azpiazurekin elkartuta, zumea lantzeko industria bat altxatzea erabaki zuen, mementoan “Busca y Compañía” saskigintza-lantegi moduan abiatu zena. Altxatutako eraikina handitu egin zuten 1905ean, nabe bat gehituta benetako fabrika bihurtuz, zeinak 1968ra arte iraungo zuen.

1902ko irailaren 25ean hil zen, goizko zortzietan, “buruko isuri seroso” baten ondorioz, 63 urte zituela. ●

Musikari izateaz gain, hamaika lanetan aritu izan zen eta XX. mendea hastearekin bat zumea lantzeko industria bat altxa zuen, 1905ean fabrika bihurtuko zena.





LIBURUA

Bertan goxo?



CHARLOTTE PERKINS GILMAN
HORMAKO PAPER HORIA
 EDO!, 2012

AMAIA ALVAREZ URIA

Itxialdia egin behar izan dugu eta ahal bezain ondo egokitu egoera “berrira”, baina *Mediku Jaun* boteretsuak “gure ongizatea helburu” egin behar (ez) duguna esaten digun lehen aldia ez da izan egunotakoa. *Hormako paper horia* narrazioan ikusiko dugun moduan, XIX. mendean oso ohikoa zen “histeria” edo “depresio nerbiosoa” zutenek, euren rol femenino menpekotik ateratzen ziren emakumeek, “atseden sendabidea” egin behar izatea.

Esfortzu intelektual eta fisikoak baztertuta eta etxean gordeta pasa behar zituzten egunak. Posible bazen, hiritik herrira ere eramaten zituzten harreman sozialak eragotziz. Eta ez zieten idazten uzten. Narrazio honetako protagonistari hori gertatu zaio eta, egu-

neroko batean, prozesu horren berri emango digu.


Horren kritika egin zuen Charlotte Perkins Gilmanek 1892an lehen aldiz ingelesez argitaratu zuenean. 120 urte geroago Ana I. Moralesek euskarara ekarri eta EDO! argitaletxeak gure eskura ipini du sarean.

Erreferentziazko testu feministatzat dute literatura ingelesean, eta interpretazio desberdinak egin dizkiote: zapalkuntza patriarkalari aurre egiten dion pertsonaia, literatur kritika feministaren metafora, prentsa sentsazionalistaren aurkako aldarria. Gaiari dagokionez emakumea eta zoramena da nagusi (“desoreka”, “auto-kontrola”, kolore horia), emakumeak eta idazketa ere bai (desiraren debekua), edo medikuntzaren eta ezkon-

tzaren izaera patriarkalaren salaketa.

Bere borondatearen kontra eta askatasuna murriztuta etxean sartuta dagoen emakume bat dugu, domestikatu nahi dutena, “bere lekuan” ezarri. Saioa Ruizek eta Amaia Serranok egindako hitzostean irakurri ahal dugunez etxea “kaiola” edo “kartzela” bihurtuko zaio.

Interesgarria iruditu zait bizi dugun larrialdi egoeran testu hau berrirakurtzea edo deskubritzea, izan ere, testuinguruak beste esanahi batzuk emango dizkio testua berrituz eta gaurkotuz. Irakurleak bizi (izan) duen itxialdia eta horren ondoriozko aldaketa fisiko eta psikikoak berrikusi ahal ditu testu honen irakurketaren bidez eta protagonistarekin beste kokapen batetik identifikatu. Probatu nahi? ●



MUSIKA

Benedetti Michelangeli: pianoaren perfekzionismoa

 MONTSERRAT AUZMENDI DEL SOLAR

Zalantzarik gabe, 2020a 'Beethovenen urtea' da, haren jaiotzaren 250. urteurrena ospatzen baita. Kontzertu-zikloez, musika sinfonikoaz, pianorako musikaz gozatu ahal izango dugu -egoerak ahalbidetzen duenean noski-. Benetan ospatu beharreko efemeride bat da. Baina ezin ditugu ahaztu aurtengo beste urteurren batzuk, agian ez hain distiratsuak, edo ez hain ezagunak, baina horiei buruz hitz egin behar dugu.

Joan den mendeko piano-jotzailerik bikainenetako baten jaiotzaren 100. urteurrena betetzen da aurtengo, Arturo Benedetti Michelangelirena hain zuzen ere. Italiako Brescian jaioa, perfekzionismo handiko artista zen denean, interpretazioan, instrumentuetan, artoetan, afinazioan eta musika ekintza inguratzen duen guztian. Gauzak horrela, artista zaila, oso zaila bihurtu zen, baina sublimea, hori bai.

II. Mundu Gerra hasi zenean, Benedetti Genevako Nazioarteko Jaialdiko lehen saria irabazi zuen 1939an, baina arteak xurgatutako musikaria izate-tik urrun, nortasun aktibo eta gogotsua zuen: gerra garaian osasun-langilea izan zen, pilotua ere bai, eta ondoren, Italiako erresistentziako kidea. Gainera, Ferrari auto probatzailea eta alpinista ere izan zen. Gerra amaitu ondoren, merzitarako ospea lortu zuen kontzertista bezala, bere osasun delikatuak bira asko egitea eragotzi zion arren.



Bere perfekzionismoa gaixotasun baten antzeko zerbait ere bihurtu zen. Pianoarekin eta afinatzailearekin bidaiatzen zuen beti, kontzertuak bertan behera uzten zituen maiztasun handiz, eta sarritan emanaldi baten erdian jaitzen zen, pianoa ez baitzen entzuten berari gustatzen zitzaion bezala.

Baina teknikoki pianistarik perfektuenetakotzat jo dezakegu, kristala bezalako soinu gardena lortzen zuen. Ka-

litate paregabeko disko sorta geratu da etorkizunerako. Azpimarratuko nituzke Beethovenen piano eta orkestrarako kontzertuak, bereziki *Enperadorea*, edota Schumannen *Inauteriak* eta *Vienako Inauteriak*. Grabazio guztiak antologi-koak dira, bereziak. Horiek entzuteak gaur egun aurkitzeko zaila den maila batera eramaten gaitu. Konfinamendu egun hauetan beharrezko bakea aurkitzeko oso aproposak. ●



Retrospekzioa

 MARTA SENDIU  SENDOA CARDOSO

Ikus-entzunezkoen kontsumoaren gorakada etengabekoa den honetan, bakardadeak duen eraginaren inguruan hausnartzera garamatza *SOLO* film laburrak. Izan ere, gizarteak ikuspegi negatibo batekin begiratzen dio bakarrik egoteari, saihestu beharreko gauza balitz bezala, urrundu beharreko zerbaite.

Hala ere, bakarrik egoteak askotan gu geu hobeto ezagutzen, gelditzen, eta inguratzen gaituenari ikuspegi zehatzago batekin begiratzen laguntzen gaitu. Momentu horietan duguna moteldu egiten da eta egiten duguna kontzienteago egiten dugu, ulertu egiten dugu zergatik egiten dugun egiten ari garena.

Bakartasuna ahalik eta gehien disfrutatzen ahalegindu arren, berandu baino lehen harengandik mesfidantza sortzen zaigu. Ez gara fidatzen, eta ihes egiten dugu. Berrirori mugikorraren aurrean jarri eta konturatzen gara zenbat denbora igarotzen dugun ezagutzen ez dugun eta asmatutakoak diren

bizitzak begiratzen. Momentu horretan bertan, pena sentsazioa sumatzen dugu, baina tristura sentsazio berdina izaten dugu pertsona bat bakarrik egon dela jakiten dugunean. Tematu egiten gara bakardadea ekiditera, beldurra sortzen zaigu gure benetako gua eza gutzean.

Bakarrik egotearen inguruko hausnarketa hau aurkeztu du Sendoa Cardoso bere azken film laburrean. Bizitzaren denboraldi batean egindako ariketa retrospektiboa abiapuntutzat hartuta, gizarteak bakartasuna ulertzeko dituen kontraesanak azaleratzen ditu, hau da, sozialki nola ulertzen den bakardadea.

Eneko Sagardoyk jarri dizkio hitzak eta irudiak zuzendariaren bizi esperientzia pertsonal honi. Kutsu intimista duen filmaren protagonista nagusi eta bakarra da. Etxe batean grabatuta dago hiru minutu luzeko bideo hau. Sukaldean Eneko eta poxpolo kutxa bat ageri dira, eta zuzien inguruko metafora bat kontatzen

du narratzaileak poxpoloetako sua putz eginez itzaltzen duen bitartean.

Etxeke egongelan garatzen dira gainontzeko minutuak. Egongelak oiha edo baso itxura hartzen du, lore koloretsuz eta belarrez inguratuta ageri da orain Sagardoy. Bertan, astiro begiratu eta ukitzen ditu loreen hostoak, barne ezagutza prozesu batean murgilduta egongo balitz bezala. Baina, bat-batean lorategia desagertu eta logela huts bat agertzen da. Eneko mugikor bati begiratzen ari zaio eta barne ezagutza prozesua etenda gelditu dela ematen du, jada ezin da egongelan bizitza topatu eta berrasmatu.

Film laburrari amaiera emateko, Sagardoyren hurbileko planoak ageri da. Bertan, aktorearen begirada sakon eta etengabekoarekin bakardadea ekiditearen arrazoiak bilatzen saiatzen den heinean, haren burua ezagutzeko beldurrarekin topatzen da. Agian, hori da benetako bakardadea, ezjakintasunak gidaturiko etengabeko distrakzio batean bizitzea. ●



Hitz gezidunak

PILOTAN JOKATZEKO TRESNA TXAMARRA	ALE, BIHI PUSKA TXIKI	ZUREZKO ZATI LUZEA ETA LAUA	MANGA- NESOAREN IKURRA ERABAT BETE	ZIBURUKO RAP TALDEA AHOLEGAR	FALTSU PERTSO- NAIAREN ABIZENA	ETEKINAK EGIPTOKO HIRIBURUKO HERRITAR
LORIAZ BETE MASAILEAN EMATEN DEN UKALDI		ZANGOEN HIGIDURA BI ERRO- MATAR ZENBAKIZ		BELDURREZ KILOA		
					UTIKAN! OINARRIZKO EDARI	
ERABAT, TXIT	LETRA IZENA PERTSO- NAIAREN IZENA					NORI ATZIZKIA IKUZI
		ERREALEKO FUTBOL- ZELAIA		IZAN MINERAL KOLOREDUNA		
OHITURA INTERJE- KZIOA					ASIAKO ESTATUA ITALIAKO HIRIA	
	NITROGE- NOAREN IKURRA DIRU-ZIGOR					
ITXAROTE ÄTSEDEN HARTZERA BEHARTU		SUARI DARIONA DAUKAT	ELIKATU ZEIN	BYTE RONA	BROMOAREN IKURRA MENDEBAL- DEAN, ZEN	ALTXA!
						HAMAR ERROMATAR ZENBAKIZ SELENIOAREN IKURRA
SUMINDU YEMENGO HIRIBURUKO BIZTANLE			ONGARRI ANPEREAREN IKURRA			
				KONPOSIZIO MUSIKALA		

Sudoku


BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO
ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3
KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

	5		6	2		8		
	8				1		2	
			8		3		4	
	3	2						
9			2		7			3
						1	8	
	9		3		8			
	4		5				1	
		7		9	6		5	

5x5

ZECHARRETARA ETA GOITIK BEHERA,
HITZ BERA.

1. Nekazari.
2. Uda.
3. Gau ona opa izateko.
4. Eutsi, jasan.
5. Guztiz txikia dena.



EBAZPENAK

1. LUGIN
2. UDARA
3. GABON
4. IROZO
5. NANOA

8	5	3	6	7	4	2	1	9
3	4	8	5	7	2	9	1	6
7	6	4	9	3	5	1	8	2
9	1	5	2	8	7	4	6	3
2	7	9	8	6	3	5	4	1
6	3	8	7	4	1	5	2	9
4	5	1	6	2	9	8	3	7

L	E	U	N	I	M	R	V	L	V	N	V	S
U	S	T	V	R	U	N	O	U	L	U	S	
X		I	Z	V	R	V	N	E	D	E	S	V
	R	B	B		J	K		O	I	V		
K	A	I						N	H	O		
V	A	G	A					V	A	R		
N	O	G	E						O	S	O	
I	R		U					U	K			
K	I	T	U	O	K	E	L	I	V	S	V	M
Z	V	R	V	K	I	S	O	I	R	O	L	
O	K	O	J	V	K	N	V	H	V	K	V	J
M	B		M		M	O	G		P			

Laia Palau

HILEZKORRA



SASKIBALOIA BIDELAGUN

“Familian kirol hau beti egon da presente. Ni ausazko arrazoiengatik hasi nintzen, izan ere kirol desberdinak gustatu izan zaizkit betidanik. Eskolako talde baten bitartez hasi nintzen eta, konturatu gabe, profesionalki saskibaloira dedikatu edo ez erabaki behar izan nuen eguna iritsi zen. Zaila izan zen, saskibaloiaz bizitzea posible zela ere ez nekien garai hartan. Baina kirolariok erabaki asko hartu behar izaten ditugu oso gazte izanik. Ikasketak utzi nituen eta buru-belarri jarraitu nuen honetan. Gaur egun pozik nago egindako ibilbidearekin”.

“Informazioa eta ikusgarritasuna ezinbertzekoak dira berdintasunaren aldeko borrokan”

Espainiako Emakumezkoen Saskibaloia Ligan Uni Girona taldeko antolatzailea eta 2014az geroztik Espainiako selekzioeko kapitaina da Laia Palau (Bartzelona, 1979). Frantzian, Polonian, Txekiar Errepublikan eta Australian jokatu izan du eta Espainiako Estatuan saskibaloiko domina gehien irabazi dituen jokalaria da.

 SAIOA BALEZTENA  DAVID SUBIRANA MACIA / FEB

Koronabirusa dela-eta bertan behera gelditu da saskibaloia liga. Nola daramazu?

Alarma egoera indarrean sartu zenetik ziurgabetasuna nagusitu da. Lehendabiziko astea shock egoeran bizitu nuen; hilabete askotako lanaren ondoren, liga amaitzear genuen, kanporaketan sartuta ginen eta dena amaitu behar izan genuen bat-batean. Gerora egokitzen joan naiz. Dagoeneko badakigu liga bertan behera geldituko dela eta ez dela txapeldunik egongo.

Tokioko Olinpiar Jokoak ere atzeratu behar izan dira. Nola eragin dizu horrek?

Dena behar bezala badoa, datorren urtean egingo dira. Tira, denoi eragiten digu halako hitzordu garrantzitsu bat atzeratzeak, baina egia da eragina larriagoa dela lau urtez Olinpiadak prestatzeko lan egiten duten kirolarientzat. Are gehiago kontutan hartuta egitura oso prekarioak dituzten kirolari anitz daudela. Hori bai, nik 40 urte ditut eta nire helburua

zen Espainiako selekzioarekin Olinpiar Jokoen ondotik erretiratzea. Beraz, ez dakit zer gertatuko den.

40 urte dituzu baina sasoi ezin hobean jarraitzen duzu...

Tira, aitortuko dizut konfinamendua hasieran denetik pasa zitzaidala burutik: nire bizitza osoan ez naiz sekula egon hainbertze denbora lehia-tu gabe. Eta pentsatzera iritsi naiz bizitza ez ote zitzaidan ari abisu bat ematen, nire kirolari ibilbidea bertan behera uzteko.

Erretiroan pentsatzen ari zara, beraz?

Krisi uneraren bat izan dut eta bai, pentsatu dut konfinamendua aitzakia ona izan zitekeela kirola utzi eta norabide berri bati heltzeko. Baina hiru egunez gelditu nintzen eta kalte egin zidan. Errutina behar ditut eta momentuz ez dut erretiratzeko asmorik. Hurrengo denboraldian liga amaituko dut eta, ongi banago, Olinpiar Jokotara ere joanen naiz. Gero geroak.



"ERRENTAGARRIA DENAK SALTZEN DU ETA GAINONTZEKO GUZTIAK EZ DU TOKIRIK.
BAINA KIROLAK, BERTZE GAUZA ANITZEK BEZALA, EZ LUKE SALEROSKETA IZAN BEHAR".

Gizarte gaietan interesa izan duzu betidanik. Zenbateraino da kirola gizartea aldatzeko lanabesa?

Kirola gizartea eraldatzeko sekulako ibilgailua da: *porsche* bat da. Elkartasun sentimendu irmoa sortzea ahalbidetzen du, ikusiz zein praktikatuz. Eta talde kirolek, batez ere, balore anitz irakasten dituzte.

Hala ere, kirol anitzetan nagusi dira baloreetatik urruti gelditzen diren interesak ere.

Gizarte kapitalista batean bizi gara eta hori denaren gainetik dago. Errentagarria denak saltzen du eta gainontzeko guztiak ez du tokirik. Baina kirolak, bertze gauza anitzek bezala, ez luke salerosketa izan behar.

Espainiako Estatuan domina gehien dituen saskibaloijokalaria zara. Zer diozu zure palmaresaz?

Hagitz kontent nago. Eskarmentuak ematen didanari esker, azken urte hauetan izugarri gozatzen ari naiz. Are gehiago, txipa aldatu eta azken txanpa hau horrela bizitzea erabaki nuenetik gauza onak pasa zaizkit bakarrik.

Hitz egin dezagun berdintasunaz. Zenbateraino dago emakumeen kirola isilarazita gaur egun?

Erranen nuke Espainiako Estatuan emakumezkoen kirolen artean, igeriketa sinkronizatuaren ondotik, saskibaloijokalariai zaintzen direla ongien. Beraz, federazioari dagokionez, nik ez dut kezkarik: desberdintasunak daude, baina primei eta tratamenduari dagokionez mutilekiko berdintasuna dugu. Baina noski, emakumeon kirola ez dago inolaz ere gizonen mailan, ez bakarrik soldadari dagokionez: ez dugu aukera berdintasunik. Nik ezingo ditut sekula izan ez entrenadore onenak ezta azpiegitura onenak ere. Eta hori kontutan hartuta ni tokirik onenetan egon naizela dudana palmaresagatik...

Emakume futbolariak greba egin dute berriki. Uste duzu beharrezkoa dela gisa horretako greba orokor bat, futbolaz harago?

Zer aldarrikatzeko? Eta nork botako gaitu faltan? Aldarrikapen onena gure lana eta emaitzak erakustea da. Eta bai, bidegabekeriak salatzearen aldekoa

naiz, baina zintzoki uste dut gure esparruan greben bitartez ez dugula gehiegi lortuko. Agian ez naiz behar bezain auserata?

Amaitzeko, zer deritzozu komunikabideek emakumezkoen kirolaren inguruan egiten dugun jarraipenaz?

Informazioa eta ikusgarritasuna ezinbertzekoak dira berdintasunaren aldeko borrokan. Niri batek baino gehiagok galdetu izan dit saskibaloijokalaria izateaz harago zertan lan egiten dudana. Emakumeon inguruan desinformazio handia dago eta hedabideek aukera duzue errealitate horren erakusleho izateko. Nik bi arazo nagusi ikusten ditut: bata kirolaren inguruan eraikitzen den begirada da, eta bertzea, matxismoa. Emakume kirolarien inguruan idazten diren albisteek pena ematen dute. Liga desberdinetan jolasten dugu eta ez dut berak bezainbeste diru irabazten, baina kirolari dagokionez, nire egunerokotasuna Pau Gasolaren berdina da, eta aldiz, nik ez dut berak duen ikusgarritasunik. ●



BERANDUEGI
KRONIKA SERIOSA EGITEKO



BIDALI ZURE HARRIKADAK: BERANDUEGI@ARGIA.EUS



Osasunaren Mundu Erakundeak ohartarazi du koronabirusa betirako gera daitekeela gure artean, EAJ bezala

Txerto bat aurkitzeko aukera deskartatzen ez den arren, uztailen jeltzaleek berriz ere hauteskundeak irabazteko arriskuaz ohartarazi dute medikuek. ●

Gizarteari inolako ekarpenik egiten ez dioten alferrikako jarduera ekonomikoak laugarren fasetik aurrera jarriko dira martxan Hego Euskal Herrian

Julian Iantzi pozik agertu da, behingoz bere sektorearen egoera argitu delako. ●



HIRU GANGSTA, XOLOMO BATEN ZAIN.

Erresistentzia kutxa antolatu dute Elgoibarren, une zail hauetan herriko droga-salmentako profesionalei laguntzeko

"Elkartasun arrastoak" izeneko ekimenaren barruan, 60 euroko ekarpenak egin ahalko dira eta jende solidarioak farlopa gramoa bana jasoko du gauzak bere onera etortzen direnean. ●

OASIKO
Kronikak

▶

UMORE KONFINATUA
Entzun podcasta astean behin

Itzultzaile neuronalak

Euskarazko testuen itzulpen azkarra



Sartu testua,
ahoz zein idatziz



Elkarlanean dihardugu.

Covid-19ren krisialdian lanean jarraitzen dugu bidezkoagoa den mundu baten alde. Inor bidean geratu ez dadin.

Pertsonen bizitzak hobetzen ditugu.

Garapenerako lankidetzarako euskal eragileak.

